



Birmoldaketa lanak amaituta, Murueta Torre herritarrei ateak zabaltzeko prest dago

Durango • 2,5 milioi euro erabili dituzte Udal Euskaltegiaren egoitza hartuko duen eraikina konpontzeko. • **5**



"Lasto-altxatzea kirol esplosiboa eta teknikoa da; denbora gutxian gauza asko egin behar da"

Kirola • Zapatuan Euskadiko lasto-altxatze eta txinga-eroate txapelketak lehiatuko dira Durangoko Ezkurdi parkean. Lasto-altxatzen Otxandion bizi den Ruth Linaza arituko da, besteak beste. Lan txukuna egitea du helburu. • **26**



"Eskuin muturra geldiarazteko ardura gizarte osoarena da"

Elkarrizketa • Marra Junior Euskal Herriko mugimendu antirrazistako aktibista esanguratsuenetariko bat da. Atzo migrazioari, muga politikei eta arrazakeriari buruzko berbaldia eman zuen Zaldibarren. Eskuin muturraren gorakadaz, ezkerreko proiektu indartsu baten beharrianaz, estereotipoez eta aurrera begirako erronkez berba egin du ANBOTOGaz. • **2-3**

Motor gehigarria

"Ibilgailuek mugitzeko energia iturri bat edo bestea erabili, icebergaren punta da"

Gehigarria • Automobilgintzak dituen erronkei buruz berba egin dugu Iurreta Lanbide Heziketako Eneko Barroeta eta Gorka Mujika irakasleekin. • **14-17**



ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

 **UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

ARRAZAKERIA • EKAITZ HERRERA

Bilboko mugimendu panafrikarreko sortzaileetarikoa bat izan zen; hiri horretako San Frantzisko auzoan bizi da; Munduko Medikuek erakundeetan lan egiten du eta kulturarteko bitartekaritza gaietan aditua da. Marra Junior Euskal Herriko mugimendu antirrazistako aurpegiarik esanguratsuenetakoa da. Eguenean Zaldibarren egon zen arrazakeriari, migrazioari eta muga politikei buruzko berbaldia ematen. Beragaz batera, Sani Ladan analista politikoak eta Solange R.S. Bouyane Diatta zaldibartarrak parte hartu zuten. Berbaldia Zaldibarko Jendeak elkarteak antolatu zuen.

Aktualitateari buruz galdetuta hasiko dut elkarrizketa. Zein da zure erreakzioa Europako hauteskundeetan ultraeskuinak izan duen gorakada ikusita?

Mugimendu sozialek, arrazakeriaren kontrakoak barne, hainbat lorpen egin dute azken urteotan. Eskubideak konkistatu eta irabazi dituzte. Eta orain lorpen horien kontrako erreakzio bat ikusi dugu. Beldur bat da oinarria, botere ekonomikoek eta botere kontserbadoreek agintea galtzeari dioten beldurra. Herritarren iruditegi kolektiboan, logika kultural eta sozial zehatz batzuetan oinarrituriko proiektu europar bat dago txertatuta, eta irudikapen horrek berak ezinezko egiten du proiektua eraldatu daitekeela imajinatzea. Horrenbestez, hauteskundeetan gertaturikoa Europa aldatzen dabil ideia horri erantzuteko erreakzioa izan da. Baina ez da egia Europa aldatzen dabilenik. Europa sekula ez da izan iruditegi kolektibo horretan txertatuta dagoen ideia. Ameskeria da, ez errealitatea. Beraz, hauteskundeetako emaitzak boterea galtzeko beldurraren isla dira.

Eskuin muturra instituzio publikoetako aukera politiko arrunt eta zilegi modura ikusteko joera normalizatzen dabil?

Bai, eta iruditzen zait normalizazio horren zati bat jada eginda dagoela. Orain Vox-en moduko alderdiak ditugu ahotan. Ematen du ultraeskuina politikara heldu berria dela, ezerezetik sorturiko zerbait dela, baina ez da horrela. Eskuin muturraren oinarriak hainbat prozesu politikotan egon dira. Orain gertatu dena da oinarri horiek sigla batzuen barruan instrumentalizatu direla eta instituzio publikoetan izan dezaketen ordekaritzak beldurra eragiten digula. Hori guzti hori gizartera eramanda, kontuan hartu behar dugu aukera politiko horri babesa eman diotenak herritarrak eurak izan direla. Taberentan, jatetxeetan, kalean, herrian, gure artean dauden herritarrak. Bestalde, normalizazio horrek zerikusirik handia du gorroto eta beldur



Marra Junior
Ekintzaile antirrazista
SENEGAL | 1984

“Eskuin muturra abantailaz jokatzeko dabil; goazen proposamen politiko berri bat elkartasunetik eta anaitasunetik sortzera”

Marra Junior Euskal Herriko mugimendu antirrazistako kide esanguratsua da. Zaldibarren egon da berbaldia ematen

diskurtsoekin. Zure moduko eta nire moduko pertsonen pentsamendua desplazatzen dabilta, arazoan irtenbidea hor dagoela sinetsarazteko; adibidez, immigrazioa geratu behar horretan. Eta, azkenik, asko dira konkistaturiko eskubideen alde, herritarren mugikortasun libreak alde eta bizikidetzaren alde dauden herritarrak. Baina eurretariako asko besoak gurutzatuta geratu eta ez dira botoa ematera joan. Badirudi eskubide batzuk konkistatuta, dena lortua dagoela, eta ez da horrela.

Panorama horren aurrean, arrazakeriak gora egingo duela uste duzu?

Jakina. Diskurtso horiek iruditegi faltsu bat sortzen dute. Estereotipoak sortzen dituzte, diskrimi-

nazioa. Eta berbaz esaten direnak adierazpen fisiko batera ere ailegatu daitezke. Izan ere, eskuinak instituzioetatik botatuko diskurtso

“Eskubideen alde dagoen herritar asko ez da botoa ematera joan. Badirudi eskubide batzuk konkistatuta dena lortuta dagoela”

erreakzionarioak eraso edo diskriminazio egoera modura adierazi daitezke kalean. Legebiltzarkide-

ren batek edo europarlamentariaren batek Europaren arazoa migrazioa dela esateak, baten batek arrazalitzatua den beste bat jipoitzea ekar dezake, Bilbon adibidez. Eraso hori diskurtso bati zilegitasuna eta normalizazioa ematearen ondorio da.

Alde horretatik, zeintzuk dira mugimendu antirrazistaren erronkak?

Mugimendu antirrazista ezin da ultraeskuinaren gorakadaren erantzule egin. Ezta arlo politikoan harturiko erabakiek egunerokotasunean gure herrietan, gure nazioetan, izan dezaketen eraginaren arduradun ere. Ezin dugu eskuin muturra geldiarazteko eta konfrontatzeko ardura gure gain hartu. Nire ustez, gizarte osoak du eskuin muturra geldiarazteko ardura. Alde

horretatik, tresna nagusi bi behar ditugula esango nuke: balio positiboekin lotuko den iruditegi kolektibo berri bat batetik, eta eskuin muturraren aurrean proiektu berri bat garatzea era paraleloan. Baina badirudi ezkerrekoak garenok, bakearen aldekoak garenok, kontzientzia bat dugunok, ez gaudela halako proposamen bat sortzeko gaitasun nahikoagaz. Ematen du gaitasunik barik gaudela proiektua pentsatzeko, imajinatzeko eta amesteko. Hain gaude eskuin muturrak egiten duenari begira ze, ez dugula proposamen kontrajarri bat sortzeko gaitasunik. Horrek erakusten du eskuin muturra abantailaz jokatzeko dabilela. Beraz, gizarte modura, goazen gizateriaren balio

positiboak indartzera, eskuin muturraren proposamenak isiltzera eta gure proposamen politikoak elkartasunetik, aniztasunetik, herrialdeen arteko aniztasunetik eta kontzientzia berri batetik sortzera. Iruditzen zait mugimendu antirrazistaren erronka proiektu horretan eragitea dela.

Zentzuk dira komunitate arrazalatuak kalean jasan behar izaten dituen aurreiritzirik ohikoenak?

Guztiak gizarte laguntzetatik eta Gutxieneko Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzetik bizi direla pentsatzea da aurreiritzirik ohikoenetarikoa bat. Migratzaileei etxebizitza debalde eskaintzen zaiela, edo migratzaileek osasun sistema publikoaz abusatzen dutela pentsatzea beste bat. Ez dutela lanik egin gura, edo kalean sakelakoak ostu baino egiten ez dutela esatea. Pentsamendu negatibo horiek guztiak koloreen arabera bateratzeko joera dago. Eta hor dago pertsonen arrazalizazioa. Guztiak dira kolorea, neutroa dena, zuria, izan ezik. Kolore neutroa, zuria, zibilizatuia ei da. Gainerakoak, gaizkileak. Arrazalizazioak estereotipo negatibo guztiak antolatzen ditu. Horrez gainera, bestelako jarrerak daude. Adibidez, metroan bidaiatzen doan arrazalizatutako pertsonaren ondoan jesarri gura

ez izatea. Poliziagaz ere badago zer kontaktu. Susmagarria izatea da zure oinarria. Baina pertsonak ez gara ilegalak. Gizartea eta bere legeak dira herritarrak ilegal egiten dituztenak.

Zenbat bider entzun duzu honako hau: "Ni ez naiz arrazista, baina..."? Egia esan, egunero. Esaldi horrek gizarteko pentsamenduan gailentzen den logikari erantzuten

di, hiztegi zehatz baten eraikuntzari. Eta asko maite ditudan eta estimu handia diedan lagunen partetik ere entzuten ditut halakoak. Edozelan ere, azpimarratu gura dut eurretariako asko barruko herentzia koloniala eta arrazista deseraikitzeke lanean dabilzala. Gertatzen dena da hainbeste urtean eraikitako proiektuak urte gutxi batzuetan deseraikitzea gatxa izaten dela.

Komunitate arrazalizatuan LGBT pertsonak, ez-bitarrak daude, eta, beraz, ezin diogu mugimendu horri bizkarrik eman

di, hiztegi zehatz baten eraikuntzari. Eta asko maite ditudan eta estimu handia diedan lagunen partetik ere entzuten ditut halakoak. Edozelan ere, azpimarratu gura dut eurretariako asko barruko herentzia koloniala eta arrazista deseraikitzeke lanean dabilzala. Gertatzen dena da hainbeste urtean eraikitako proiektuak urte gutxi batzuetan deseraikitzea gatxa izaten dela.

Musulman, aliatu feminista eta LGTB aliatu modura aurkezten duzu zeure burua. Eta inoiz esan izan duzunez, bolo-bolo dabilen beste aurreiritzi bat islama eta feminismo askatzaileak bateraezina direla pentsatzea da.

Bai. Hiyaba janzten duten lagun askoren egoera da hori. Emakume feministak dira, baina hegemoniko modura izendatzen dugun feminismoak seinatu eta feminista izaera kentzen diela dirudi. Nire inguruko emakume arrazalizatu askok bizi duten egoera da. Bestalde, gizonezko arrazalizatuen artean maskulinitate tailerrak lantzen ditugu, eta hor ere antzerako egoerak gertatzen dira. Gure komunitate barruan LGTB pertsonak daude, identitate ez-bitarra dutenak ere bai. Horrenbestez, ezin diogu LGTB mugimenduari bizkarrik eman, gure komunitateko kideak mugimendu horren zati ere badirelako. Hau da, arrazalizatuak garenon artikulazio politikoa ezin da arrazaren ikuspegitik bakarrik fokalizatu. Komunitate arrazalizatua osatzen duten kide guztien identitateak, generoak, gorputz adierazpenak hartu behar ditugu aintzat. Aliatu izan behar dugu, ez dago beste irtenbiderik. Eta kontua ez da horren zati bakarrik garelako, hori ere bagarela baino.

Gizartean eta instituzio publikoetan ohikoak dira "kultur aniztasuna" era baikor batean aurkezteko mezuak. Praktikan ere halantxik da?

Iruditzen zait instituzioek, orokorrean, horrelako terminoak instrumentalizatu egiten dituztela. Baina ezin da kultur aniztasunari buruz berba egin gero egiazko integrazio bat lantzeko programa bat martxan ipintzen ez bada. Adibidez, integrazio linguistikoari lo-

Gure auzoetan inpaktu positiboa sortzen duten proiektuak garatuta, aurreiritziei aurre egiteko babesa lortuko dugu

turikoa. Migratzaileek euskaragaz hartu-eman zuzena izan behar dute etorri berritan. Euskal gizarteko zati barik, migratzaile asko euskal herritar sentitzen dira, eta, horrenbestez, herritar horiek programa linguistiko bat behar dute. Zelan gura dugu integrazio erreal bat garatu, gero kulturari dagozkion elementu guztiak, hizkuntza buru dela, txertatzen ez baditugu? Bestalde, instituzioek berba politik adierazteko erabiltzen dute

kultur aniztasuna. Horren atzean asimilazio proiektu bat dago. Badirudi atzean utzi dugula bizikidetzeta, gainditu dugula integrazioa eta denok parte hartzen dugula maila berean, baina kontua da ez dugula denok berdinean parte hartzen. Adaptazio eta inklusio politikak behar ditugu.

Parean dauden erronkak ez dira gutxi. Nondik hasi eragiten?

Ez nuke jakingo nondik hasi. Baina argi dut proiektu erraldoietan, Europan, pentsatzen ibili barik, maila lokalean eragiten hasi behar dugula. Azken finean, horixe delako gertuen duguna eta gertutasuna ematen diguna: gure komunitatea, gure herrikideen elkartasuna. Bizilagunen arteko mugimenduak artikulatzea, adibidez, tresna eraginkorra izan daitekeelakoan nago. Zerbaiten parte sentitze hori, auzo bateko zein herri bateko parte izate hori, funtsezkoa da. Eremu horretako herritarrengan inpaktu positiboa, baikorra, lortzen duten proiektu solidarioak garatuta, kanpotik datozen aurreiritziei aurre egiteko babesa lortuko dugu. Europako arazoek gure auzoetan dute isla, baina auzoan elkartasunez eta inor salbuetsi barik antolatzen bagara, borrokarako tresna eraginkorra lortuko dugu.

1.218 euroko elkartasun dohaintza, Zaldibartik Gazara bidean

Ekainaren 1eko jaialdi solidarioan baturikoa Gazako Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango diote

ELKARTASUNA • EKAITZ HERRERA

Eskurik esku eta auzolanean egingandako lanak emaitza ezin gozoagoa utzi du: Zaldibar-Palestina dinamika Gazara bidaliko du joan zen ekainaren 1eko jaialdi solidarioan baturiko dirua. Herritarrek prestaturiko pasta arabiarrak, pintxoak, txapak eta banderolak saldu 1.218 euro batu zituzten. Eta orain Palestinara bidean ipiniko dituzte diruok. "Gurea Gernika-Palestina herri ekimenaren barruko dinamika da. Han gertatzen dabilena ikusarazteko eta ekarpen ekonomikoak batzeko lan egiten dugu. Baturiko dirua Gernika-Palestinari emango diogu, azken honek Gazan bertan lan egiten duen Gobernu Kanpoko Erakunde bati helarazi diezaion", azaldu du dinamikako kide den Idoia Marin zaldibartarrak.

Ekainaren 1eko jaialdian eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jardunaldia "arrakastatsua" izan zela azpimarratu du Marinek. Gainera, aipamen berezia egin dio jaialdiaren aurreko egunetan herriko hainbat emakumek antolaturiko topaketari. "Arratsalde batean, atzerritik Zaldibarrera bizitzera etorri diren hainbat emakumegaz batu ginen herriko elkarte gastronomiko batean, pasta arabiarrak elkarlanean egiteko. Besteak beste, emakume marokoarrak eta sahararrak egon ziren horien artean. Eurek proposaturiko ideia izan zen eta euren jatorrizko errezetak partekatuta egin genituen pasta arabiarrak", azaldu du Idoia Marinek. Guztira, 2.000 pasta inguru egin zituzten eta ekainaren 1eko azoka solidarioan 150 bat dozena saldu zituzten.



Zaldibarko hainbat emakumek pasta arabiarrak egin zituzten, gero azokan saltzeko.

“Ez da kasualitatea ezker independentistaren gorakada betean isun hau heltzea”

lazko irailaren 22an egindako ekimen bigaitik, Ernai antolakundeko 133 gaztek 290.500 euroko isuna jaso dute, tartean Durangaldeko hamabost lagunek



DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Ernai gazte antolakundeak oraintsu salatu du Eusko Jaurlaritzaren Segur-tasun Sailak ia 300.000 euro eskatu dizkiela isunetan; lazko irailaren 22ko ekimen bitan 133 gazte identifikatu eta gero, 1.500etik 2.500 eurora bitarteko isun bana heldu zaie gazte horiei; guztira, 290.500 euro; Durangaldeko hamabost lagunek ere jaso dute isuna; tartean, Amaia Arbeo durangarrak eta Julen Añibarro zornotzar-rrak. Ernai "ekonomikoki itozteko eta bere jardun politikoa deuseztatzeko" saiakera bat dela salatu dute. Erantzun kolektiboa emango dutela adierazi dute, eta, horrez gainera, kanpaina ekonomiko bat ere ipini dute martxan.

Noiz izan duzue isunaren berri?

Julen Añibarro: Orain hilabete heldu zitzaigun. 2023ko irailaren 22an Aitor Zelaia eta Galder Barbado gazteen kartzalaratzea salatzeke egindako dinamikengaitik heldu dira. Bilbon eta Gasteizen ekimen bana egin zen, eta Ernaiko 133 militante identifikatu zituzten; tartean, Durangaldeko hamabost. Segur-tasun Sailaren bitartez heldu dira isunok, mozal legea aplikatu eta gero. Gure ustez, isun hauen helburua Ernai ekonomikoki itoztea eta bere jardun politikoa deusestatzea da. Herri mugimendua urteetan jazarri dute, eta kasu honetan Ernairi tokatu zaio.

Amaia Arbeo: Hainbat ekimen egin zen Aitor eta Galder espetxeratzearen harira, eta oraindino horietariko baten harira jarritako isunen zain gaude. Jaso ditugun isunen kasuan, ez genuen uste hain handiak izango zirenik. Mozal legeagaitik jasotzen diren isunak 600 euro ingurukoak izaten dira, eta, gainera, protestaren arduradunak identifikatzen dituzte; kasu honetan, dimentsio neurrigabea hartu du, parte hartu genuenok banaka identifikatu gintuzten eta. Aipatu beharra dago EAEn mozal legea ez ezartzea adostu zen arren, milaka bider aplikatu dutela 2015etik.

Zergaitik isun hauek orain?

J. A.: Gure proposamen politikoa deserosoa da haientzat. Ez da kasualitatea ezker independentista goraka doan momentu honetan horrelako isun bat heltzea. Bel-durretik erantzun dute, moduren batean gure militantzia bertan behera uzteko.

A. A.: Geroago eta militante independentista gehiago gaude, eta Europako hauteskundeetan EH Bilduk lortu dituen emaitzak hor daude. Gure proiektu politikoa ere geroago eta gehiago dabil zabaltzen gazteen artean, eta mekanismo errepresiboaren hautua egin dute hori deuseztatzeko. Errepresio horri erantzun kolektiboa emango diogu: helegiteak banaka aurkeztuko ditugu, baina gazteria aktibatzeke modu baten pareko ere ulertuko dugu erantzuna. Pedagogia independentista gehiago egingo dugu, kikildu beharrean, anbiziotik.

Ernai ekonomikoki itozteko eta bere jardun politikoa deuseztatzeko saiakera bat da hau

Kanpaina ekonomiko ipini duzue martxan.

A. A.: Luzera begirakoa izatea aurreikusten dugun dinamika bat ipini dugu martxan, isun hauez gainera beste batzuen zain ere bagaudelako. Pozik gaude kanpaina honen hasierak izan duen oihartzunagaz.

J. A.: Helburu bigaz hasi dugu kanpaina hau. Alde batetik, laguntza ekonomiko eskatzeko. Kontu korronte zenbaki batera egin daitezke dohaintzak, eta aurrerago jaialdi bat egiteko asmoa ere badugu, eta merchandisinga ateratzeko ere bai, besteak beste. Bestalde, dinamika honez pedagogia independentista ere egin gura dugu, dugun indarra azpimarratzeko.

Tabirako marmitako lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik dago

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Tabira auzoko jaietako ekitaldirik arrakastatsuenetariko bat marmitako lehiaketa da. Urtero makina bat lagun batzen da Tabirako parkean, lapikoa sutan ipini eta marmitakoa prestatzeko. Aurtentzen 29rako antolatuta dute hitzordua, eta zabalik dago izena emateko epea. Ekainaren 25era arte dago horretarako aukera, Tabira Etxean. Pertsonako 3 euro ordainduko dira.

Bestalde, Tabirako Mendi Martxa eta Lasterketa ere egingo dituzte, ekainaren 23an. Parte hartzeko, www.kirolprobak.com webgunean eman daiteke izena, edo, bestela, egunean bertan ere bai, 08:00etan, Tabiran.

Durangoko Udalak ikastaro eta kultur tailerretarako lizitazioa hasi du

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durangoko Udalak ikastaroak eta kultur tailerrak emateko lizitazio prozesua hasi du, 72.642 euroko aurrekontuagaz. Kontratua zati bitan banatu dute. Batetik, urritik maiatzera bitartean egingo den pintura tailerra emango dute, 16 urtetik gorakoentzat. Martitzen eta eguenetan ordu biko saioak egingo dira, hainbat ordutegitan. Bestetik, hilero, kultur-tailer programa bat diseinatu eta egingo dute.

Kontratuak ikasturte biko iraupena du, eta beste bat lutzatzeko aukera. Lizitazio prozesuari buruzko informazioa www.durango.eus webgunean dago.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko ekainaren 14a
22. urtea - 983. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01

ISSN:
1578-7028

Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Erabiltzeko prest dago kulturarteko espazio asoziatiboa izan gura duen Murueta Torre dorretxea

Eraikina birmoldatzeak 2,5 milioi euroko inbertsioa eskatu du; dorretxeak Udal Euskaltegiaren egoitza hartuko du


DURANGO • AITZIBER BASAURI

Herritarrei ateak zabaltzeko prest dago Murueta Torre dorretxea, kulturarteko espazio asoziatiboa izan gura duen azpiegitura berria. 1660ko eraikina guztiz eraberritu dute, bere balio historiko handia babestuz eta herritarren premiei egokitu. "Azpiegitura modernoa da, eskuragarria, eta askotariko

ekintzak antolatzeko egokia. Eraikina Durangoren birgaitze urbanoaren ikur bihurtu da", adierazi zuen Mireia Elkoroiribe alkateak aurkezpenean. Proiektu "anbiziotsua" izan da eta 2,5 milioi euroko inbertsioa egin dute.

Eraikina lorategiz inguratuta dago, 400 metro koadro ditu, eta bertan erabilera anitzeko aretoak,

tailer eta batzarretarako gelak, eta erakusketa zein kultur ekitaldiarako guneak egokitu dituzte. "Murueta Torreren birmoldaketak gure ondare arkitektonikoaren biziberritzea eta herritarrentzako gune moderno eta eskuragarri baten sorrera irudikatzen du. Gure historiaren garrantzia nabarmen-tzeaz gainera, herritarren parte hartzea eta kultur hartu-emana sustatzen du, eta hori funtsezkoa da Durangoren garapen sozialerako", gaineratu zuen Elkoroiribek. Udal Euskaltegiaren egoitza ere izango da Murueta Torre, "hezkuntza esperientzia hobea eskainiz". Paule Sanchez euskara zinegotziak azaldu zuenez, "teknologia aurreratu eta baliabide didaktiko modernoekin" hornitu dute, "premiatzko zerbitzuari ikusgarritasun handiagoa emanez". Horrek 200.000 euro gehiago eskatu ditu.



Udal ordezkariak eta Udal Euskaltegi arduradunak agerraldia egin zuten, atzo, Murueta Torre dorretxea birmoldatuta erakusteko.

Durango Tabira eta San Fausto auzoetan komun publikoak ipini dituzte

Ekainaren bigarren hamabostaldian egongo dira herritarrentzat erabilgarri, hornidura-altak eta erabilera egokia bermatzeko beharrezko egiaztapen teknikoak egin ondoren

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Udalak komun publikoak ipini ditu San Fausto eta Tabira auzoetan, eta ekainaren bigarren hamabostaldian egongo dira erabilgarri. Kokapenak "estrategikoki" aukeratu dituzte; "jende asko dabilen lekuetan daude". Bata Tabirako parkearen eta Intxaurren jolasgunearen arteko ibilbidean ipini dute. Bestea San Fauston, Astolabideko ibilbidean eta jolasguneetik gertu. "Jende asko dabilen lekuetan daude, durangarrak erosoago ibiltzeko". Udalak 135.278 euro inbertitu ditu komun publikoak ipintzeko.



Udalak 135.278 euroko inbertsioa egin du.

Zaldibar Euskal Herriko goitibeheren topaleku izango da domekan

38 parte hartzaile lehiatuko dira Goierri Solozabal baserrirainoko aldatsetan. Proba 16:00etan hasiko da

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Domekan Euskal Inertzia Kopako proba puntuagarria jokatu da Zaldibarren. Euskal Herriko hainbat bazterretatik ailegaturiko goitibeherak Goierri auzotik beherako aldatsetan lehiatuko dira, Solozabal baserrirainoko bidea eginda. Proban "goitibeheren aniztasuna" ikusi ahal izango dela aurreratu du Eneko Iraetak, Zaldibarko Aldatsa goitibehera taldeko kideak. "Ibilgailu ikusgarriak izango dira batzuk" eta "erroda-

mendudun klasikoak" beste hainbat. "Goitibeherak puri-purian egon ziren 90eko hamarkadan. Gerora geldialdi bat izan zuten, eta azkenaldian badirudi loraldi berri bat izaten ari direla", azaldu du Iraetak. Horren erakusgarri, bitxikeria bat. Parte hartzaileen artean, Herrialde Katalanetako Castello probintziako talde bat ere egongo da. Iazko parte hartzeari eutsita, guztira 38 bat goitibeherak parte hartuko dute. Proba 16:00etan hasiko da.



Zaldibarren jokatuako goitibeheren jaitsiera bat. URTZI ZURIKARAI

Airearen kalitateari buruzko jardunaldi zabala, Durangon

Saioa udaletxeko udalbatza aretoan egingo dute, ekainaren 18an, eta parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango airearen kalitateari buruzko jardunaldi informatibo zabala egingo dute, ekainaren 18an. Udaletxeko udalbatza aretoan izango da, 19:00etan, eta bertan Mireia Elkoroiribe alkateak, Javier Agirre Orcajo Eusko Jaurlaritzako Kalitate eta Ekonomia Zirkularreko zuzendariak eta Aitor Larrucea udaleko plangintza iraunkorreko arduradunak parte hartuko dute. Udalak bertan parte hartzera gonbidatu ditu herritarrek.

Durango eta Durangaldeko airearen kalitatearen egungo egoerari buruzko aurkezpen zehatza egingo dute, ohar batean azaldu dutenez. Era berean,

mugikortasun jasangarriago baterako urratsak eta erronkak jorratu dituzte, eta baita kutsadura murrizteko eta garraio ekologikoen erabilera sustatzeko martxan dauden estrategiak eta proiektuak ere. Jardunaldia boro-biltzeko, galdera saio bat egingo dute, bertaratutakoen kezka eta iradokizunak azaltzeko.

Martxoan, udalak amaitutza eman zuen udalerriko airearen kalitatea hobetzeko Ekintza Plan. "Bentzeno mailak nabarmen murriztu genituen", esan dute. Lorturiko emaitzak partekatze eta ekintzabide berriak aztertze helburuagaz, Jaurlaritzari informazio saio zabal bat antolatzeko eskatu diote.

Mañariko Denda astelehenean zabalduko dute berriro eta herrirako "supermerkatu txiki bat" izatea gura dute

Durangon bizi zen Arantza Zilaurren galdakoztarra izango da arduraduna. Sasoi bateko Rafa Harategia hartu du eredu negozio berrirako: beharizan handiko produktuak salduko ditu, gertuko ekoizleak lehenetsiko ditu eta harategia ere izango du

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Udalak Mañariko Denda berriro zabaltzeko egin duen ahaleginak bere fruitua eman du. Astelehenean atea zabalduko dute berriro. Astegunetan 08:30etik 20:00etara egongo da zabalik, eta zapatuetan ere zabalik egongo da, bertako arduradun berria den Arantza Zilaurrenek adierazi duenez. Oraingoz, ordutegi horregaz hasi eta bezeroen beharrak ezagutu gura ditu, apurka haietara egokitzeko. Astelehenean doazen bezeroek luntxa aurkituko dute dendan, ongietorri modura.

Zilaurrenek 62 urte ditu eta galdakoztarra da, baina 13 urte daramatza Durangon bizitzen, eta aurretik beste 14 eman ditu Zornotzan. Ostalaritza eta turismo teknikari ikasketak ditu eginda eta "esperientzia zabala" du jatetxeetako sukaldari nahiz zerbitzari modura. Durangoko denda batean ere lan egindakoa da. Orain, bere denda propioaren gidaria izango da eta "ilusio

handiz" hartuko duen ardura dela dio.

Inguruko produktuak

Denda zelan antolatuko jakiteko, Rafa Harategia izan du inspirazio.

"Mañariarentzat supermerkatu txiki bat" bihurtu gura du eta eguneroko beharizanekeo produktuak salduko ditu, arlorik arlo. Harategia ere izango du, sasoi bateko dendak zuen legez. Haragiari, barazkiei

eta beste produktuei dagokienez, "gertuko ekoizleak" lehenetsiko ditu. Dendako txoko batean joko didaktikoak ipini gura ditu, nagusi zein umeentzat, mahaiekin eta aulkiekin.



Aste honetan denda berrirako prestakuntzan murgilduta aritu da Zilaurren.

Plazako eraberritzea hizpide hilaren 20an Izurtzan egingo den herri batzarrean

IZURTZA • J.D.

Apurka-apurka Izurtzan aurrea doa udalaren ibilbide orria plaza eraberritu eta berrantolatzeko. Apirileko lehenengo batzar zabalean, herritarren ekarpenak jaso zituzten. Jasoriko ekarpen eta ideiei forma eman eta aurreproiektu bat osatu dute. Orain, herri batzarra egingo dute txosten hori herritarren aurrean aurkezteko. Batzarra ekainaren 20an izango

Ekainaren 20ko batzarra 18:00etan izango da, Izurtzako erabilera anitzeko eraikinean

da, eguena, 18:00etan, erabilera anitzeko eraikinean.

Apirileko batzarrean herritarren partetik irtendako ekarpenen artean, umeak aintzat izango dituen espazioa izatea eta oraingoa baino inguru naturalagoa izatea dira azpimarratzekoak.

Atxondo Udalbiltzan sartu da, beste bost herrigaz batera

Iturmendin egindako batzarrean hartu zuten erabakia

ATXONDO • J.D.

Udalbiltzak, Euskal Herriko udal eta hautetsiak batzen dituen erakunde publikoak, ezohiko Kontseilu Nagusia izan zuen joan zen barikuan, Iturmendin. Bertan, Atxondo Udalbiltzan sartzea onartu zuten, aho batez, beste bost herrigaz batera: Azpeitia, Bergara, Iturmendi, Lekeitio eta Lesaka. Horren ondoren,

Atxondon udalbatzarra egin zuten atzo, eguena, eta, besteak beste, Udalbiltzara begirako ordezkariak aukeratu zituzten.

Udalbiltzatik jakinarazi dutenez, hamahiru dira dagoeneko 2024an Partzuergora sartu diren kide berriak. Izan ere, urtarri-leko Kontseilu Nagusian beste zazpi herri gehitu ziren Udalbiltzara.



Udalbiltzak Iturmendin egindako bilkurako irudia.

Mainondoko frontoiaren erabilera berria zehaztu dute Otxandion

Mainondoko frontoiko atea eskola orduetan eta zuzendutako jardueretan baino ez dira egongo zabalik; barruko instalazioetan eta rokodromoan izaten diren apurketak ekidin gura ditu Otxandioko Udalak



Otxandioko frontoia.

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Otxandioko Udalak Mainondoko frontoirako sarbidea arautu du, eta funtzionamendu berria zehaztu. Modu horretan, frontoiaren barruko instalazioetan eta rokodromoan "behin eta berriro" izaten diren apurketak ekidin gura dituzte. Udal ordezkariak jakinarazi dutenez, frontoiko atea eskola orduetan eta zuzendutako jardueretan baino ez dira egongo zabalik. Gainerako orduetan, txartela erabili beharko da bertara sartzeko. Araudi berria ekainaren 10etik dago indarrean.

Frontoia erabili gura duten herritarrek aurretiaz erreserbatu beharko dute ordua. Hala ere, 25 euro ordainduta urte osoko bonua ateratzeko aukera ere izango dute. Bonuak urte osoko sarbidea izateko eta argia erabiltzeko eskubidea emango duela adierazi dute. Udal arduradunek gaineratu dute zuzendutako jarduerak eta erreserbek lehenetsia izango dutela frontoia erabiltzerako orduan.

UDA KO 10. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak webgunera edo
bidali 688635041 zenbakira
irailaren 15era arte

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

Info+ www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
informatika & telekomunikazioak


ERRIGORA


Garaiiko
Landetxea

Elizalde igerilekuen irekierak kiroldegiko langileen grebak baldintzatuta jarraitzen du

Bizkaiko hitzarmenagaz bat egin ez, eta ELAk deituta langileek greba eta mobilizazioak mantentzen dituzte Elorrioko kiroldegian eta Elizalde igerilekuan; udalak "zorrotasuna eta seriotasuna" eskatu dizkie ELAri eta langileei

ELORRIO • ARITZ MALDONADO

Elorrioko kiroldegiak eta Elizalde igerilekuak itxita jarraitzen dute bertako langileen grebagaitik. "Greba mugagabe gauden bitartean, kiroldegiak eta igerilekuak itxita jarraituko dute", azaldu zuten langileek astelehenean egindako mobilizazioan. Langileek manifestazioa egin zuten, Elorrioko plazatik Elizalderaino. Hain zuzen ere, udako denboraldia astelehenean zen hastekoa Elizalde igerilekuan. "Udalak lanean jarraitzen du egoera normalizatzeko, eta arduratuta dago sortzen ari diren eragozpenengaitik", azaldu du aste honetan ohar baten bitartez Elorrioko Udalak. Horrez gainera, "zorrotasuna eta seriotasuna" eskatu dizkie greban dauden langileei eta ELA sindikatuari. Ekainaren 7an, patronalak eta LAB, CCOO eta UGT sindikatuek hitzarmen kolektiboa sinatu zuten; ELA sindikatuak, oster, ez du bat egin horregaz, eta, ondorioz, gehiengoa duen zentroetan greba egiten jarraituko duela adierazi du, tartean Elorrioko: "Hitzarmeneko edukiak ez dira aski sektorearen prekaritateari eta soldata txikiei aurre egiteko, eta, hori dela eta, Bizkaiko kirol zentro batzuetako borroka zentrorik zen-



Asteleheneko mobilizazioko irudia.

tro egingo dugu hitzarmena lortu eta aldarrikapen hauek bermatzeko: erosteko ahalmena, 35 orduko lanaldia, klaseak prestatzeagaitiko plusen hobekuntza, gaueko eta jaiegunetako plusen hobekuntza, eta bizitza duina errazten duen ordaindutako lizentziak". Udalak, oster, "une honetan" zentro mailan

ezer adostea "ezinezkoa" dela azpimarratu du, instalazioen kudeaketa esleitzeko prozesua maiatzaren 15az geroztik martxan dagoelako; hala ere, 2025eko urriaren 1etik aurrera kontratua arautuko duen pluetan beharrezko hobekuntzak negoziatzeko "prest" dagoela azaldu du. "Esleipen-kontratuaren

pleguak argitaratuta, legez kanpoko da horiek aldatzea; hala eginez gero, Sektore Publikoko Kontratuaren Legea urratuko luke, hau da, legearen kontra egingo luke, eta horrek ondorio larriak izango lituzke udalarentzat, kiroldegiarentzat eta, orokorrean, Elorrioko herriarentzat", arrazoitu du udalak.

Udaletxe parean batu dira beste behin ere, Elorrioko eguneko zentroaren alde

ELORRIO • A. M.

Elorrioko eguneko zentroaren aldeko plataformak deituta, egunean elkarretaratzea egin zuten Elorrioko, osoko bilkura zegoela aprobetxatuta. Udaleko alderdi politikoei konpromisoa eskatu zieten, mozio baten bitartez. "Hau ez da alderdien arteko ika-mika eta lehia huts. Hau gorago doa, hemen eta orain, elorriar guztien zaintza duina jokoan dago", eskatu zuten.

Orain hilabete batu eta aurkezturiko 2.760 lagun sinadurak aintzat hartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiari duen ardura hartzeko, eta eguneko zentroa zabaltzeko eskatu zuten Elorrioko plenoan. Herriko datuak ipini zituzten mahai gainean. "Udalak eskaturiko ikerketak argi dio eguneko zentroa ezinbestekoa dela Elorrioko: 125 herritarrek bigarren eta hirugarren gradu bitarteko menpekotasuna dute. Are gehiago, Elorrioko bizi diren menpeko pertsonen %88k ez dute inguruko zentroen zerbitzurik erabiltzen, herrian mugitzeak ahalegin handia suposatzen dielako", argitu zuten.

Berriztu Berrizko Sortzaileen Azoka egingo dute, zapatu honetan, Berrizen

Hamar sortzaile berriztarren lanak ipiniko dituzte zapatuko Berriztu azokan



Iazko Berriztu azokako argazki bat.

BERRIZ • A. M.

Berriztu Berrizko Sortzaileen Azokaren edizio berri bat egingo dute zapatu honetan, ekainak 15. Berrizko sortzaileek elkar ezagutzeko eta euren lanak berriztarrei erakusteko asmoagaz antolatzen dute Berriztu. Antolatzailen esanetan, edizio honetan hamar sortzailek erakutsiko dituzte euren lanak. Azoka udaletxe aurreko lorategian egingo dute, 10:00etatik 14:30era. "Ohiko azoketan parte hartzen ez duten arren, Berrizen hainbat sortzaile dago; elkar ezagutzea eta euren lanak herritarrei erakusteko aukera izatea gura dugu", azaldu dute antolatzailak. Gunea musikagaz girotuta egongo da.

Zornotzan Kantuz egitasmoaren hirugarren edizioa egingo dute, gaur

Kantaldia 19:30ean hasiko da, Venecia tabernatik

ZORNOTZA • A. M.

Zornotzan Kantuz egitasmoaren hirugarren edizioa egingo dute, gaur, Zornotzan. 19:30ean hasita, parte hartzaileek herriko hainbat kale zeharkatuko dute kantuan. Venecia tabernatik hasiko dira,

eta, guztira, zazpi gunetan geratuko dira kantatzen. Euskal kantak abestu ohi dituzte Zornotzako kaleetan zehar. Antolatzailak bertan parte hartzera deitu dituzte zornotzarrak. Iaz 600 bat lagunek parte hartu zuten.



Iazko argazkia.

Oraindik ez zara ANBOTOko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa


EKAINEN ZOKKETAK




Alcamporen eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Mendexa Abentura Parkerako bost sarrera bikoitz.



Hotel Balneario Areatzan bi lagunentzako gaua, gosaria eta zirkuitu termala.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

Okm:

batzen gaituen distantzia

*Zokketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



“Askotariko jendea batzeko helburuz prestatuturiko Lasterbidean izango da, lasterketatik harago doana”

Abadiñok Lasterbidean egitasmoaren hamargarren eta azken edizioa hartuko du asteburu honetan. Gaur hasiko dituzte ekintzak, Anje Duhalde eskertzeko ekitaldiagaz

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Biharkoa egun potoloa izango da, Lasterbidean lasterketaren azken edizioa egingo da eta. Korrikalariak 11:00etan irtengo dira, Txanportatik. Baina gaurko plana ere ez da gutxies-teko modukoa. 20:30ean Anje Duhalde kantariari esker ona adierazteko jaialdia egingo dute eta hainbat kultur sortzailek parte hartuko du bertan. Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalaria Lasterbidean egitasmoagaz bat egin duen kideetarikoa bat da.

Ailegatu da Lasterbidean Abadiñora. Urduri?

Apur bat urduri egotea normala da, batez ere antolakuntza lanean buru-belarri dabiltzanek. Edozelan ere, iruditzen zait dena ondo bideratuta dagoela.

Zuretzat zergaitik da inportantea Lasterbidean?

Hamargarren edizioa da, edizio borobila, eta azkena. Gainera, hori guzti hori Abadiñon egitea inportantea da niretzat. Esango nuke indar eta babes nahikoa egon dela halako zeozer antolatzeko. Lasterbidean egitasmoak ziklo bat zarratuko duen arren, elkartasun ekintzak ez dira hemen amaituko.

Zergaitik emango zaio amaiera Lasterbideani?

Egoera aldatu egin da eta gaur egungoa egoerarik onena ez den arren, orain hamar urteko eszenatokiak eta gaur egungoak ez dute zerikusirik. Horrek esan gura du zikloak amaitu egin behar direla. Lasterbidean euskal presoei, ihes-



Oihana Azkorbebeitia mendi korrikalariak bat egin du Lasterbidean egitasmoagaz.

larietara eta haien senideei elkartasuna eta babesa emateko helburuz sortu zen, euren eskubideak errespetatu daitezkeen. Alde horretatik, egitasmoaren azken edizioa izatea pozgarria da gauzak onerako aldatu direlako, oraindino dena konpondu ez den arren.

Zer azpimarratuko zenuke egitarautik?

Askotariko jendea batzeko helburuz prestatuturiko egitaraua da, ohiko lasterketatik harago doana. Anje Duhalde eskertzeko ekitaldia izango dugu, eta baita parrillada, bertsolariak eta herri bazkaria ere, besteak beste. Lasterketa atalean, korrikaldi txikia eta oinez egiteko martxa ere egongo dira. Publiko zabalari begirako edizioa izango da.

Ohituta gaude zu mendi lasterketetan topera ibiltzen ikustera. Zapatuko korrikaldian ere parte hartuko duzu?

Jakina! Umeekin joango naiz izena ematera, goizeko lehenengo orduan. Lasterketa hasi baino lehenago ere laguntzen egongo naiz. Gero korrikaldia egingo dut, eta, beste ezertan lagundu behar bada, hor ere egongo naiz.

Zelan gonbidatuko zenituzke irakurleak asteburuan Abadiñora joatera?

Oso publiko zabal bati begirako egitaraua da. Anje Duhaldegaz gaur egingo den ekitaldia ederra izango da. Gero, zapatuan, eguraldiak laguntzen badu familia giroan gozatzeko eguna izango da. Bazkaria, martxa, ibilaldia, umeentzako ekintzak,... jai ederra izango da.

Estibaliz Gonzalez irabazle Mallabiko 'Ez Esan!' lehiaketan



Finaleko gala parkeko anfiteatroan egin zuten.

MALLABIA • J.D.

Galdera-erantzunen Ez Esan! lehiaketak badu irabazlea: Estibaliz Gonzalez. Otsailetik hona hilerik hile galderei ondo erantzundako lau bikotegaz finaleko gala egin zuten joan zen asteburuan, Mallabitarrok Egina egunaren barruan. Publikoko jendeak ere parte hartzeko aukera izan zuen. Bost galderako lehenengo txandan, bikote bik eta publikoko batek egin zuten aurrera. Bigarren txandan bakarka aritu ziren eta Esti Gonzalez izan zen boskotean onena. Irabazleak ez ezik parte hartzaile guztiek jaso zuten sariren bat, Praktikatut egitasmoaren barruko produktuak: motxilak, poltsak, agendak...



Iurretako Udaleko eta Barbaroko arduradunak.

Bost urte beteko dira Iurretako Etxego gaztelekua zabaldu zela, eta ibilbide hori ospatuko dute irailean

Herriko gaztetxoentzat erreferentziatzeko leku bat izateko helburuagaz jaio zen Etxego; gaur ikasturtea agurtuko dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Aurten bost urte beteko dira Iurretako Etxego gaztelekua atea zabaldu zituela, eta egitarau berezia prestatzen hasita daude urteurrena ospatzeko. Urteotako ibilbidea erakutsiko duen argazki erakusketa egingo dute irailean, baita gaupasa ere. Halaxe azaldu dute udal arduradunek eta zerbitzuaren koordinazioa daraman Barbaro elkartearen ordezkariak.

Gaztelekua gaztetxoentzako erreferentziatzeko leku bat izateko helburuagaz jaio zen, euren nahiak asetzeko, eta, bide horretan, Etxegoren ordutegia zabaltea aztertzen dabilta. Zorione Fundazuri zinegotziak

esan duenez, urtariletik aurrera barikuetan ez ezik zapatuetan ere zabalteko aukera aztertuko dute. Orain barikuetan dago zabalik, 17:00etatik 20:30era, eta 12tik 16 urtera bitarteko gazteek erabiltzen dute. "Modu librean datoz, egoteko edo ekintzak antolatzeko leku bat dute gaztelekua", esan du Fundazurik. Tarteka, ekintza bereziak eta irteerak ere prestatzen dituzte, Jokin Aizpuru begiraleak gaineratu zuen lez: "Espazio libre bat dute, gura dutena egiteko". Gaur, ikasturtea agurtzeko, ur eta zikin jolasak egingo dituzte, eta gero elkarregaz afalduko dute, Barbaroko Laia Gerrikagoitiak esan duenez.

Ibarretxe kultur etxeak Iurreta Berbaz Mintzodromoa hartuko du

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurreta Durangaldeko berba-lagunen topaleku bihurtuko da ekainaren 19an. Ibarretxe kultur etxeak Iurreta Berbaz Mintzodromoa hartuko du, 18:00etatik 19:30era. Bost laguneko taldeetan, euskaldun zahar eta euskaldun berriek elkarregaz euskaraz berba egiteko aukera izango dute, 15 minuturo taldez eta gaiz aldatuta. Jan-edanerako, bertsoetarako eta musikarako tartea ere egongo da.

AEK-k dinamizatuko du ekintza, eta Kristina Mardarasek eta Naroa Jaiok giroa egiteko dute topaketa. Durangaldeko udalek sustaturiko ekimena da. Gaur da izena emateko azken eguna (946 812 726 / 688 863 736 / biblioteca@iurreta.eus).

Herrian erosteagaitik toalla bat emango dute opari Iurretan

Udalak tokiko komertzioa bultzatzeko kanpaina hasi du



Oskar Koka alkatea eta Alex Palacios Dendak Bai elkartearen presidentea, aurkezpenarekin.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak, Dendak Bai merkataritza eta ostalaritza elkartearekin batera, herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko kanpaina berria ipini du martxan, *Erosi Iurretan eta prestatu uda gozatzeko!* lelopean. Ekainaren 30era bitartean, herrigunean dauden establezimenduetan 50 euroko gastua eginda, herritarrek toalla bat eskuratuko dute opari.

Hainbat erosketa tiketatu daitezke, eta tiketek ez dute zertan establezimendu berekoak izan. Oparia lortzeko tiketak Herri-tarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkeztu beharko dira. Bidaia agentzia batean trukagarriak diren 250 euroko balioko bidaia txartel bi lortzeko zozketan parte hartzeko aukera ere egongo da. HAZen emandako paper bat bete beharko da, eta bertan adierazitako postontzian sartu. Oinarriak www.iurreta.eus eta www.dendakbai.eus webguneetan daude.

Larrina eta Etxeita inguruak ezagutzeko txangoa zapatuan

Ibilaldi gidatua 10:00etan irtengo da, Garaiko plazatik. Txangoaren amaieran hamaiketako egingo dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Urrutiko bazterrak ezagutzera joaten ibili barik, Trumoitte Kultur Elkartek egunpasa antolatuta du zapatuetan, Garaiko hainbat txoko ezagutzeko. *Garai Ezagutzuz* egitasmoaren lehenengo txangoa izango da, Larrinako eta Etxeitako

inguruak bizilagunen ahotik ezagutzeko aukera emango duena. Ibilaldi gidatua 10:00etan irtengo da, plazatik. Ibilaldiaren ondoren, hamaiketako batez beste amaituko dute goizpasa. Trumoittekin umek, gazteak zein helduak deitu dituzte parte hartzera.



Besteak beste, Etxeitako artea bisitatuko dute.

Atxondoko Udal Igerilekua




2024 DENBORALDIA

Ekainaren 21etik
irailaren 1ra
(biak barne).

Ordutegia:
11:00-20:00

SARRERA

- 4 urtera arteko umeak **debalde**
- 5-17 urte bitartekoak **4€**
- 18tik gorakoak **5€**




Durungaldean EH Bildu izan da alderdirik bozkatuena, eta EAJ bigarrena

Pernando Barrenak eta Oihane Agirregoitiak eserlekua eskuratu dute Europako Parlamentuan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Hauteskundeak igarota, Europako Parlamentua beste bost urterako berrituko da laster. Bruselako Legebiltzarrak eskumara egingo du, alderdi ultrasenak izandako gorakadaren ondorioz. Hego Euskal Herriko Alderdi Sozialista izan da garaile. Sozialistak indarririk bozkatuena izan dira Nafarroan, Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, ostera, EH Bildu nagusitu da. Eta datuak Euskal Autonomia Erkidegora eramanda, koalizio subiranista izan da indar



Durungaldeko datuen grafikoa.

politikorik babestuena. EH Bilduk Orain Errepublikak izeneko koalizio multzoan txertatu du bere eskaintza politikoa, Pernando Barrena hautagaia tartean zela. Barrenak eurodiputatu izatea lortu du. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko mapagaz segituta, EAJ hirugarren postuan kokatu da. Jeltzaleak bigarren indarra izan dira Bizkaian, hirugarrena Gipuzkoan, eta laugarrena Araban. Edozelan ere, Oihane Agirregoitiak bere ordezkartzari eutsi dio.

Eskualdeko emaitzak

Durungaldeari dagokionez, EH Bildu eskualdeko udalerririk guztietan izan da garaile, Garain izan ezik. Han EAJk irabazi du. Anboto.org webgunean herririk herri daude emaitzen grafikoa.

Politikan

Carlos Garcia
Fernandez
PP



Unibertsitate-ospitale bat nahi dugu Durangon

Durangorako proiektu bat proposatzen dugu, Europako funtsekin ere finantzatu dena eta durangarren eta eskaldun guztien bizimodua hobetuko duena.

Aukera paregabea dago antzinako tren biltegiaren lur librean, udalerriren erdigunean: 62.640 metro kuadro.

Eta Durangon eta gure eskualdean osasun-laguntzaren alorrean gabezia handia dugu, eta, horregatik, eskualdeko ospitale bat nahi dugu 200.000 pertsona artatzeko, durangar guztiak artatzeko, eta gainerako ospitaleak liberatzeko (Galdakao, Basurto, Gurutzeta, Urduliz...)

Ospitale bat nahi dugu 200.000 pertsona artatzeko, durangar guztiak artatzeko, eta gainerako ospitaleak liberatzeko

Gainera, erizaintzako espezialitatea duen unibertsitate-ospitale bat izatea nahi dugu, gure osasungintza osoan profesional horien gabezia arintzeko eta Durango unibertsitate-hiri bilakatzeko. (Leioa, Arrasate eta Eibar bezala...)

Horixe defendatu dugu udal hauteskundeetan, EAEko hauteskundeetan, eta baita Europako hauteskundeetan ere, eta erakunde guztietan bultzatuko dugu, lortu arte.

Durangoko Unibertsitate-Ospitalearekin, Durango osasuna da, Durango hezkuntza da eta Durango enplegua da. Durango hobe bat da durangarrentzat.

Durungaldea asteen

ONCE Espainiako Itsuen Erakundeak Jose Mari Mardarasen lana saritu du

DURANGO | ONCEk 2023ko 22 satzailerik onenak batu zituen Madrilan, ekainaren 7an. Lanerako jarrera, bezeroekin duten inplikazioa eta erakundearen lan sozialagaz duten inplikazioa eskertzeko, ONCEk omenaldia egin zien, "urte osoan zehar egindako ahalegina aitortuta". Horien artean Jose Mari Mardaras durangarra izan zen. EAEko saltzailerik onena izendatu zuten. Urtero egiten duten ekitaldian, ONCEk hamabost gizon eta zazpi emakume saritu zituen. Horiatariko zortzi itsu daude edo ikusmen-desgaitasuna dute, eta beste hamalau bestelako desgaitasunen bat.



Europako Mendietako helikoptero istripuan hil zirenak gogoratu dituzte

DURANGALDEA | 37 urte bete dira Durangaldetik Asturiasera joandako erreskate talde batek helikoptero istripua izan zuela. Joan zen asteburuan, omenaldi ekitaldia egin zuten Covadongako lakuaren ertz batean dagoen oroigarrian. Bertan izan ziren Euskadiko eta Asturiasko Erreskate Txakurren Taldeko kideak eta ezbeharrean hildakoen senitartekoak eta lagunak. Ekitaldian, aurten hildako Gotti Greiner ere omendu zuten. 1987ko ekainaren 12an Durangaldeko lau herritar hil ziren istripuan Covadongako lakuetatik gertu, han inguruan galduriko ume bat topatzeko lanetan zebiltzala. Hiru elorriarrak ziren, eta bat garaitarra.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tartekak barne).

Maiztegik eta Juan Orobiogoitiak 2030 Agendaren foroan parte hartu dute

IURRETA | Iurretako Udalak sustaturiko 2030 Eskola Agendaren barruan, Maiztegi ikastetxeko eta Juan Orobiogoitia institutuko ikasleek Zaldeiko ibaiertza garbitu dute, eta ekintza ekosozial hori aztertu ondoren hainbat konpromiso hartu dute Iurretako 2030 Agendaren foroan aprobetxatuta. Garbiketa kanpainak antolatzea, paperontzi kopurua handitzea eta enpresek gutxiago kutsatu dezaten neurriak hartzea proposatu diote udalari.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa



MOTOR

gehigarria
2024

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.: 946 202 004
taller.alluitz@vasataldea.eus · www.alluitzmotor.com



“Oraindino konbustio motorrak dira nagusi, baina apurka teknologia berrien nozioak sartzen gabiltza irakaskuntzan”

Iurreta Lanbide Heziketan gaur egungo lan merkaturako prestatzen dituzte ikasleak, baina etorriko denari adi daude, trantsizio batean sartuta gaudelako



AUTOMOZIOA • JOSEBA DERTEANO

Eneko Barroeta Usubiaga (Iurreta, 1976) eta Gorka Mujika Larrañaga (Eibar, 1972) automozio arloko irakasleak dira Iurretako LHII Lanbide Heziketan. Energia iturriei dagokienez euren sektorea erregai fosiletatik elektrikorako eta beste iturri batzuetarako trantsizio batean murgilduta dago gaur egun, eta begi bat eraldaketa prozesu horretan ipinita dute, gero pausorik pauso irakaskuntzara eramateko.

Zeintzuk dira, zuen ustez, trantsizio honetan automozioak jasangarritasunaren ikuspuntutik dituen erronka nagusiak?

Gorka Mujika: Auto partikularrak ez dira jasangarriak. Ideia orokor horretatik abiatuko nintzateke. 70eko hamarkadan ibilgailu gutxi zegoen. Familia bakoitzak bere kotxea izatetik pertsona bakoitzak bere kotxe propioa izan behar zuen ideia nagusitu zen. Nire ustez, trena da garraio biderik jasangarriena mugikortasunaren aldetik. Bere sasoiaren, gure inguruan zegoen trenbide azpiegitura indartu beharrean, kotxe partikularren aldeko apustua egin zen. Eta horrela ibili gara urte askoan. Orain, kontrako bide batean gaudela dirudi, gizarte eredu aldaketan dabil.



Ona zuretzat, ona zure etxearentzat.

Zatoz eta ezagutu Alcampok zuretzat duen guztia.

Ezagutu gure gasolindegia, inguruko merkeena!

DURANGO
Montorreta industrialdea, 1 ST3 errepeida

Alcampo
Irabazten ateratzen zara



DESGUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta
Tel.: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta deskusatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.



ARRIBIDE
GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA

DESGUACES MALLABIA

- Bajak izapidetza
- Garabien zerbitzuko bilketak
- Eusko Jaurlaritzako KUDEATZAILE BAIMENDUA
- Gehieneko tasazioa duten autoen salerosketa
- Balio-bizitzaren amaieran deskusatzeko tratamendua eta ibilgailuen kudeaketa
- Garabi zerbitzua 24 orduan, Euskal Herrian eta inguruetan
- Ordezko pieza erabilien salmenta

Mallabarrena poligonoa 10-12 Mallabia

946 175 490 · 632 812 666 / 632 754 180

Eneko Barroeta: Gure sektorean, ibilgailuek mugimendurako energia iturri bat edo bestea erabili, icebergaren punta dela uste dut. Sakonago begiratuta, erantzuna bilatu beharreko galderak daude; esaterako, auto bat ekoizteak zer kutsadura eragiten du? Jasangarritasunaren hausnarketak hedadura zabalagoa du. Gero, etorkizunera begira, ikusi egin beharko da transizio honek eskualdean nahiz Euskal Herrian eragiten duen inpaktua, automozioiko enpresa asko ditugu eta. Interes gatazka bat

menta murriztu egin dela azken urteetan, jendeak ez dakielako zer egin, zer aukeratu. Nire ustez, kotxe elektriko baten autonomiak portzentaje handi batean asetzen ditu pertsona baten garraio beharrianak. Joan-etorri laburretarako, elektrikoa nahikoa da; Bilbora, Donostiara edo Gasteizera joateko, esaterako. Gainera, Jaurilaritzak oraindino diru laguntza ematen du kotxe zaharra elektriko batengaitik ordezkatzeko. Baina ezin diogu galdera horri ziurtasun osoz erantzun, ez dakigulako gaur erositako auto elektriko batek zelan eboluzionatuko duen. Hau da, erosi eta lau urtera kotxeko softwarea zaharkituta geratzen bada? Orduan zer?

Irakaskuntzaren arloan, aldaketa asko egon da garai berrietara egokitzeko?

E.B.: Aldaketa prozesuaren hastapenetan gaude oraindino. Gure ikasleak gaur egungo lan merkatuak prestatu behar ditugu eta oraindino errekuntzako motorrak dira nagusi tailerretan. Baina, apurka, teknologia berrien ezagutza sartzen gabiltza irakaskuntzan, nozio eta kontzeptu orokorrak. Baina errekuntzako motorrekin egiten ditugu praktikak gehienbat. Elektrikoki lehenengo pausoak emateko ekipamendua ere badugu, baina oraindino lehenengo pausoetan gaude. Gainera, kontuan hartu behar da automozioa ikasten duen ikasle batentzat motorra alderdi bat baino ez dela: karrozeria, txasisa eta bestelako sistema elektriko osagarriak ere badaude, eta horiek berdin jarrai-

tzen dute. Edozelan ere, gizartea aldatzen doan neurrian ikasketa zentroak horretara moldatzen joango gara. Eta bide horretan irakasleok ere birziklatzen joan behar dugu.

lurretako Lanbide Heziketak hainbat urtez parte hartu du Euskeleceen, Euskal Herriko Lanbide Heziketako Ibilgailu Elektrikoen txapelketan. Praktika baliagarria da ibilgailu elektrikoekin gainera jakintza area-gotzeko?

G.M.: Bai. Errekuntzako motorra ingeniariak ikuspuntutik sortuntza konplexu eta harrigarri bat den moduan, teknologia elektrikoa sinplea da konparazioan. Euskeleceko kotxe batean jartzen den *powertrain*aren eta Teslaren

moduko ibilgailu baten arteko aldea ez da hain handia. Osagaiak nahiko antzerakoak dira. Esajeratzen nabil, jakina, hobeto ulertzeko. Orduan, Euskeleceen egiten duten lana errepideetako ibilgailuetara estrapolagarria da. Horrez gainera, taldean lan egiten ikasteko ere lehiaketa proposa da. Ibilgailu elektriko bat hutsetik sortzea erronka bat da ikasleentzat.

E.B.: Zenbait departamentutako ikasleek koordinatuta lan egin dute eta elkarregaz aurre egin behar diete bidean aurkituriko zailtasunei. Taldean lan egitea aberasgarria da ikasleentzat. Zalantzarik barik, jakintza hori guzti hori bario erantsi bat da lan merkatuan.

Zelan imajinatzen duzue 20 urte barruko Euskal Herria mugikortasunaren ikuspegitik?

G.M.: Kotxe partikularra luxuzko artikulua izango dela uste dut. Ahalmen ekonomiko jakin batetik gorakoek izango dute. Besteok, garraio publikoan mugituko garela uste dut; distantzia laburragoetan, ostera, patinete edo bizikleta elektrikoetan. Beste mugikortasun mota bat nagusituko dela esango nuke.

E.B.: Ni ez nago guztiz ados. Ez dakit prezio apaleko mugikortasun eredu hori bateragarria den botere ekonomiko handien interesekin. Beharbada norbanakoa ekonomikoki lotzeko beste bide batzuk aurkitu dituzte. Denborak esango du.

Kotxe elektriko baten autonomiak portzentaje handi batean asetzen ditu pertsona baten garraio beharrianak. Joan-etorri laburretarako nahikoa da
GORKA MUJIKKA

egon daiteke eta kontraesanei ere aurre egin beharko diegu.

Elektrikoak dira alternatiba bakarra ala gehiago dago, hidrogeno bidezko motorrak kasu?

G.M.: Luzera begira, hidrogenoa izan daiteke irtenbidea. Etorkizun laburrera begira, eredu mistoa aurreikusten dut, errekuntzako motorren, elektrikoekin eta hibridoekin artean.

Orain kotxe berria erosi behar duenak zer aukeratu behar luke?

G.M.: Oso erabaki pertsonala da eta gatz da erantzun zehatz bat ematea. Argi dago ibilgailuen sal-



lurretako Lanbide Heziketako automozio –ezkerrean– eta informatika zentroak.



Automobilien mekanika, elektrizitate eta elektronika tailerra

Alcampo merkataritza-gunea
Astola bidea, 16

Orduetegi jarraitua
Larunbatetan irekitzen dugu

667 796 234



Urkioil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

BI-623, 48213 Izurtza
BI-623, 48210 Otxandio




- 24 orduz zabalik, autozerbitzu gisa
- Txartel bidezko edo eskudiruzko ordainketa
- Berehalako deskontuak fidelizazio-txartelarekin
- Doako aire eta ur zerbitzua
- Salmenta makinak eta kafe makinak

Euskadi Low Cost-Berriz
Pol.Ind.71, 48240 Eitua, Bizkaia



- TAILERRAK -

Udako oporretara joan aurretik, ezinbestekoa da ibilgailua behar den moduan dagoela ziurtatzea. Durangaldean hainbat tailer fidagarri aurki ditzakegu, askotariko zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Oporraldia lasai eta seguru pasatu gura baduzu, hartu denbora autoa prestatzeko, hemen duzu Durangaldeko tailerren zerrenda:



AUTOS ELORRIO 2014 S.L.

Betsaide industrialdea, 11
Elorrio

Tel.: 946 583 060

Mekanika orokorrean.
Aukerako ibilgailuen salmenta.
Karrozeria.



AUTO REPARACIONES AMAYA

Arangoitia industrialdea,
lurreta

Tel.: 946 812 123

Multimarka tailerra.



MOTOS UK RACING

Laubideta, 9
Abadiño

Tel.: 846 661 060

18 urte baino gehiagoko esperientzia du motorren munduan. Motorren salmenta, tailer mekanikoa, IATA, ordezkoen hornidura eta boutique espezializatua ditugu.



URANGA AUTOAK

Goitondo industrialdea 1.pab. - behea,
Mallabia

Tel.: 943 179 717

WhatsApp: 685 751 848

Ibilgailuen konponketa eta mantenimendua.



SOLAZAGA TAILERRAK

Arriagane pol. 8, 5. pab -Zornotza

Tel.: 944 258 437

WhatsApp: 688 662 580

IAT aurreko berrikuspena, mantentze-lanen berrikuspenak, gurpilak aldatzea eta lerrokatzea, olioia eta iragazkiak aldatzea, esekiduraren berrikuspena, pastillak aldatzea eta balazta-danborrak artezteia, direkzio sistema, klimatizazioa.



AUTOGAIN TALLERES

San Agustin ind., 57- 6.pabilioia,
Elorrio

Tel.: 946 056 732/

679 174 367

Txapa.
Pintura.
Pneumatikoak.



CARROCERIAS OLAKUETA

Eitua ind, 47, Berriz

Tel.: 946 824 501

- Kolore aldaketa.
- Erabateko desmuntatzea.
- Era guztietako kolpeen konponketa.
- Karrozerien kolorea aldatzea.
- Mekanika guztia.

TAILERRAK



GARAJE SAN MIGUEL

Dantzari Auzunea, 8
Iurreta

Tel.: 946 811 479 /
628 233 584

Kutxa automatikoen mantenua
Mekanika orokorrean
Zerbitzu bizkorra, mantenua,
elektrizitatea, pneumatikoak, diagnostia,
IATaren aurrekoa, aire egokitua



MOTOS TABIRA

Arzubia indus., 10B pab.,
Matiena-Abadiño

Tel.: 946 814 068

Salmenta, konponketa, boutiquea.



GnG ELORRIO

San Agustin, 1
Elorrio

Tel.: 637 720 071

Zure konfiantzako tailer
mekanikoa.



NEUMATICOS ETXEBARRIA

Uribitarte indus. 6,
Matiena-Abadiño

Tel.: 946 232 520

Olio aldaketa, pneumatikoak
(marka guztiak), balazta pastillak,
motelgailuak.



URKILAN

Urkiuzaran 39, Elorrio

Tel.: 946 820 237

KMO autoen salmenta
Mekanika orokorra
Elektronika
Aire girotua R134A eta 1234yf
Gurpilen aldaketa
IAT aurreko azterketa
ADAS programazioa
Kaja automatikoen dialisia



GARAJE MIGUEL

Arbizua 10- 1 pab.,
Matiena -Abadiño

Tel.: 946 819 161

Garbiketa, tapizeriak,
mekanika, gurpilak.



TALLERES SERAFIN

Elorriagazar, 11
Matiena-Abadiño

Tel.: 946 814 870

45 urte baino gehiagoko esperientzia.
Gurpilen lerrokatzea, olio aldaketa,
karrozeria, gurpilen jartzea, IAT pasatu
aurreko azterketa.



BERRIZ MOTOR SPORT

Eitua indutrialdea 3A,
Berriz


Tel.: 946 212 279

Klimatizazioa, elektrizitatea,
elektronika, balaztak, mantentze-
lanak, mekanika orokorra eta azkarra,
pneumatikoak eta IAT AURREKOA.



MARGOTU

Margotu irudia gurago duzun moduan.



DIFERENTZIAK

Topatu itzazu 7 diferentziak.



1

2

3

6

7

8

9

10

11

4

5


ORIGAMI

Loroa

LABIRINTOIA



HASIERA



AMAIERA

Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan



> anboto
kide

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeke aire-goagarrietan izan ezik)

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimo litroko deskontua.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

Berria!

OSASUN ETXEA


- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline). Opari bat emango da.

Berria!

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua

**Sartu zure komertzioa
Anbotokideen deskontu sarean.
Atera etekina abantailei!**



**Egin zaituz ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!**

“Badirudi gizonezkoen umorea neutroa dela eta emakumeena markatuta dagoela, emakumeentzat dela”

'Ztandap' bakarriketa ikuskizunak genero ikuspuntutik deserosoak diren gaiekin barre leherketa eragin gura du, gaur, Durangoko Plateruenean



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

BAKARRIZKETA • ARITZ MALDONADO

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai euren hirugarren 'Ztandap' binakako bakarriketa saioa aurkezteko biran murgilduda daude. Gaur, barikua, Durangoko Plateruena kultur aterpean egongo dira, 19:00etan. Orgasmo arrakalaz, maitasun erromantikoz, elkarbizitzaz, eta 'señora izateaz' berba egingo dute, besteak beste. ANBOTOK Idoia Torregarraigaz berba egin du. "Umorea egiteko beti da garai ona, askatasunaren aurkako korranteak indartzen dabilzan garaian ere bai, zailagoa izango den arren. Horren aurka egiteko, umorea bera garrantzitsua da. Orduan ere saiatuko gara zirrikitu horiek topatzen", adierazi du.

Azaroan estreinatu zenuten 'Ztandap'. Zelako harrera izaten ari da?

Mirarik eta biok elkarrekin egiten dugun hirugarren lana da hau, eta hasieratik argi genuen gure egunerokotasunaz hitz egingo genuela, aurreko bietan bezala. Ikusten

dugu aukera dagoela guretik hitz egiteko eta barre egiteko; eta oraindik ere umorea erabiltzea bada modu bat eragiteko. *Ztandap* honetan elkarbizitzaz, *señora* izateaz, orgasmo arrakalaz... gizarte honetan deseraiki nahiko genituzkeen hainbat gauzei buruz hitz egiten

“Eskubideen alde dagoen herritar asko ez da botoa ematera joan. Badirudi eskubide batzuk konkistatuta dena lortuta dagoela”

dugu, umorearen galbahetik pasatuta, eta ordu eta erdi inguruko ikuskizuna egin dugu. Orokorrean, harrera ona izaten ari gara, izan ere, toki askotara hirugarren aldiz itzuli gara; gure indarguneetako

bat da Mirarik eta biok elkar elikatzen dugula; oso modu naturalean hitz egiten dugu eta plazandreak izateak ere laguntzen du, noski. Horrez gainera, jendeak berarengana hurbiltasuna ere eskertzen du. **Hirugarren emanaldi bat egunerokotasun horretatik prestatzea erraza egin zaizue ala errepikatzeo beldurra izan duzue?**

Kilometro asko egiten ditugu elkarrekin, eta aurreko ikuskizunarekin buelta bat egin genuenez, emanaldi berri baterako ideiak aztertzen hasi ginen. Elkarrekin ematen ditugun ordu horietan gauza asko irtetzen dira eta hirugarren hau nahiko erraz sortu da. Etorria dugu eta hori ere aldeko dugu. Ikuskizun hau ere nahiko modu organikoan irten da; beti izaten dugu zer kontatu. Gaiak aurkezteko modua bai, berria izan daiteke, baina kontatzen duguna egunerokotik dator. **Plazandreak izateak ere eragingo du.** Elkar ondo ezagutzen dugu eta horrek ere pista asko ematen diz-

kigu. Elkar elikatzen dugu eta proposamenak egiten dizkiogu bata besteari. Adibidez, 35 urtetik aurrera emakume batek bikotekiderik ez badu, gizarteak arraro begiratzen duela dio Mirarik, eta nik erantzuten diot elkarbizitzak ez duela dena konpontzen, badituela bere arazoak, eta hortik ikuskizuna bera josten hasten gara. Klabe berdinean hitz egiten dugu, eta horrela zukutzen dugu gaia. Barre eginarazi nahi dugu, ondo pasatu nahi dugu, umorearen betaurrekoak ipinita, ez betaurreko moreak bakarrik. Ikuskizuna amaitu eta gero, hausnarketa txiki bat egiteko gogoarekin itzuli nahi izaten dugu. Eta horretan plazandrea izateak badu bere eragina, bai.

Hainbat bider errepikatu duzue emanaldiak ez direla emakumeentzat bakarrik.

Ulertzen dut jendeak emakumeentzat direla pentsatzea. Erreferentziarako puntu amanko-

munak izateak beti errazten du umorea egitea, eta gu bi emakume izanda, agerikoa da emakumeekin lotura zuzena dugula. Baina ez da hori bakarrik. Umorea denentzat da, emakume zein gizon. Gizonezko gutxiago etortzen da, bai, baina ederki pasatzen dute. Hori ere bada aldarrikapen bat; hau da, kartelean bi gizonezko ikusten ditugunean umorea egiten, denentzako umorea da, baina bi emakume ikusten ditugunean, ematen du emakumeentzako umorea dela. Hau da, gizonezkoena neutroa da eta emakumezkoena markatuta dago. Kontuak asko aldatu beharko luke. Baina gustura nago, plazak beharrezkoak ditugulako modu ez katartikoan barre egiteko. Baina jendeak ez dezala pentsa emakumeentzatzat egiten dugula umorea bakarrik. Ausartu daitezela etortzera, ondo pasatuko dute eta.

“Mirarik eta biok elkar elikatzen dugu; oso modu naturalean hitz egiten dugu eta plazandreak izateak ere laguntzen du, noski”

Publikoaren aldetik, igarri duzue aldaketarik gaitegiagaz?

Bai. Zazpi urte daramatzagu hau egiten, baina ez da aldatu gure lanagatik bakarrik. Alde horretatik, gizarteak berak ere aurrera egin duelako baizik, zorionez. Orokorrean, jendeak oso ondo hartzen du, eta irekiera bat nabaritu dugu. Herritik herrira ere aldatzen da; herri txiki batzuetan sorpresa handiagoa hartzen dute, baina hau guztia normalizatzeko jende askok lan egiten du, eta nabaritzen da.

Eta sortzaile modura, geroago eta emakume gehiago ikusten duzue plazetan?

Bai. Bakarriketa munduan neska gehiago dago orain, eta hori zoragarria da. Gizarte modura, beharrezkoa dugu emakume gehiago ikustea alor guztietan, lehen lerroan egotea, sortzen zein beste era bateko lanak egiten, euskarak ere behar duelako. Bi ardatz horietan lan egin behar da. Euskarak emakume sortzaile gehiago behar du, eta poza ematen du hori horrela dela ikusteak.



Manolo Alcántara eta Joan Trilla. JORDI CALVET

Manolo Alcántara, Markeliñe eta Bar Santi, besteak beste, Uda Giron

Ekainaren 22an hasiko da Durangoko kultur zikloa, Markeliñeren 'Artilusio' lanagaz

UDA GIRO • ARITZ MALDONADO

Durangoko San Agustin kultur-guneak udarako prestatu ohi duen Uda Giro zikloa aurkeztu dute aste honetan. Hainbat diziplina-tako lanak eszenaratu dituzte bertan, ekainetik aurrera. Hain zuzen ere, hilaren 22an, Markeliñe antzerki konpainiak *Artilusio* ikuskizuna egingo du. "Guretzat Durangon aritzea etxean aritzearen parekoa da, eta bertara pieza guztiak ekarri ohi ditugu. Aurtengo zikloa hasteko ardura dugu, eta harro gaude", azaldu du Jon Kepa Zumalde Markeliñeko kideak. Ez dira eskualdeko

ordezkari bakarrak izango; Valentín Atxotegi presidente duen Leioa Kantika koralak kantaldia egingo du, uztailearen 20an, Taiwanen egitekoak diren aste biko bira baino egun batzuk lehenago. Bestalde, ekainaren 30ean, Joana Ocaña durangarra kide den Pantzart taldeak *Metamorfosien joko*a plazaratu du, eta Nerea Elustondok, Iruri Altzerrekak, Unai Iturriagak eta Bittor Salterainek bertsotan egingo dute ondoren.

Uda Girok badu beste hainbat izen garrantzitsu ere. Adibidez, Manolo Alcántarak *Maña* lan entzutetsua aurkeztuko du,

abuztuaren 2an. Alcántarak Zirkuaren Espainiako Saria jaso zuen 2021ean, eta, besteak beste, Valladolideko TAC eta Aguilar de Campooko Arca jaialdietan ere jaso ditu sariak. Egitarau osoa ANBOTOren webgunean dago ikusgai.

Sagardoy, irailean

Irailean 21ean, Eneko Sagardoy protagonista den *Emakume baten borroka eta metamorfosia* antzezlanaren euskarazko estreinaldia egingo dute, San Agustin kultur-gunean. Sarrerak irailaren 3tik aurrera ipiniko dituzte salgai.

Bederatzi talde lehiatuko dira XVII. Haizetara jaialdian

Ekainaren 21ean hasiko da kaleko musikaren jaialdi eta lehiaketa ezaguna; 23an amaituko da, sari banaketagaz

MUSIKA • A. M.

Haizetara jaialdiari eskerrak, Zornotza agertoki bihurtuko da beste urte batez. XVII. edizio honetan nazioarteko bederatzi talde lehiatuko dira 15.000 euroko saria lortzeko; musikaririk onenaren saria (1.000 euro) eta publikoaren saria (4.000 euro) ere banatuko dituzte. Ekainaren 21ean hasiko da musika Zornotzako kaleetan, 19:00etan, eta ez da hilaren 23ko eguerdira arte isilduko. Nazioarteko taldeak Belgikatik, Frantziatik,

Italiatik eta Espainiatik etorriko dira Zornotzara. "Urteak joan eta urteak etorri, Haizetara ospe eta errekonozimendu handiko jaialdi bihurtu da, eta kulturak eta arteak erronka zailei aurre egin behar dieten garai honetan, ezinbestekoa da horrelako jaialdi baten balioa eta garrantzia aintzat hartu eta gogoraraztea", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Egitarau osoa, ordutegi eta ibilbideekin, Haizetara jaialdiaren webgunean dago ikusgai.



lazko edizioiko argazki bat.

Gai librean

BIRAK

Programa amaitu da. Gaur hogeita hamar gradutan garbitu dituzu kirola egiteko kamisetak, hamarnaka kulero eta galtzerdiren bat edo beste. Saio laburra jartzeko asmoa zeneukan, baina "quick" erak ez du zentrifugatzen. Ez behintzat zuri gustatzen zaizun gisan. Indartsu, abiadura bizian eta epel.

Ia hiru orduz eduki dituzu kamiseta eta galtzerdiak uretan eta aparretan itota, buelta eta buelta metalezko danborrean. Abiadura handitzen hasi da azken minutuak heldu ahala, eta zeure burua garbigailuaren ateari begira aurkitu duzu, lurrean jesarrita, arroparen bainuari so. Ipurmasailak sukaldako zoruaren freskuran dituzula, makina barruko aparrak nola, zeure buruak ere egin du gora, eta

Ez du zentrifugatzen. Ez behintzat zuri gustatzen zaizun gisan. Indartsu, abiadura bizian eta epel

eskaratzetik haratago joan zaizkizu eguazten buruzuri bateko otuak.

Ikusi duzu zeure burua, pareta aspaldi galduta daukan galtzerdi horren antzera, jira eta bira aurrean bikinia lehenengoz janzteko momentua irudikatzen. Kamiseta arrosa horrek aspaldiko gorputza gogorazti dizu. Sekula bueltatuko ez den hezur-haragizko (batez ere haragia) tenplua. Kolorea aspaldi galduta daukan kuleroak nola, zuk ere hamazazpi mila buelta eman dizkiozu lankidearekin izandako tira-birari, aldiro entzuten duzun abestiari, epez kanpo entregatuko duzun

lanari, lagunaren bisitaren zurrumbiloari, amari eskatutako mesedeari, supermerkatuan erositako izozkiari, irakurritako azken liburuaren esaldi horri, janztera ausartzen ez zaren gonari. Zenbat aldiz pasatu da kulero gaixoa leku beretik? Zuk disgustuak gogoratu dituzun haina aldiz.

Freskuraren plazeretik hotzaren deserosotasunera igaro dira aspaldi ipurmasailak, eta burua gorputza dagoen leku berera itzultzeko garaia dela ohartu zara. Buelatu zara beraz sukaldara, eta atearren bestaldean jada ez dago aparrik. Gustuko programa aukeratu duzu arropak mimatu guran, baina, beste behin, zeure buruaren zentrifugazio programa itzaltzen ikasi behar duzula ere gogoratu duzu, garbigailuko botoiarekin nola, eguazten buruzuri bateko okurrentzien txiribueltek ere gelditu ahal izateko.



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea



Ruth Linaza Beobide

Lasto-altxaketa

OTXANDIO | 1983

“Txapelketa Durangon zela esan zidatenean asko poztu nintzen. Herri kirolak horrelako plazak behar ditu”

Zapatuan Euskadiko lasto-altxatze eta txinga-eroate txapelketak egingo dituzte Durangon, eta hantxe arituko da Otxandion bizi den Ruth Linaza lemoarra

HERRI KIROLAK • JOSEBA DERTEANO
Ruth Linazak hogeit bat urte daromatza herri kiroletan. Gasteizko Badaiotz sokatira taldeagaz makina bat domina irabazi du munduko txapelketan eta herri kiroletan. Lasto-altxatzen ez ezik, beste modalitate askotan ere aritu da, arraskastaz aritu ere: zaku-eroaten, trontzan, txinga-eroaten... Barrundiako kiroldegian elkarrizketatu dugu, entrenamendu saio baten atarian.

Ba ote dago probatu ez duzun herri kirolik?

Harri-jasotzea eta aizkoran, eta gutxi gehiago! Begira, Badaiotz sokatiran da espezialista batez ere, eta sokatirak bidaia asko

du atzetik. Hori finantzatzeko iturri modura bestelako herri kirol erakustaldiak egiten ditugu, Iparraldeko Jokoak batez ere. Otxandion egondakoak gara, esaterako. Nik sei bat urte daromatzat modalitate honetan. **Zeintzuk dira lasto-altxatzearen berezitasunak?**

Oso kirol esplosiboa da, denbora laburrean egiten dena. Kirol konpletoa da. Hanka eta beso indartsuak behar dira, eta hauspoa funtsezkoa da. Hausporik barik galduta zaude. Gainera, oso kirol teknikoa da, lehenengo begiratuan dirudien baino teknikoagoa. Denbora gutxian gauza asko egin behar da, eta zehaztasuna eskatzen du.

Orain hamaika hilabete ama izan zinen. Otsaileko munduko sokatira txapelketan bueltatu zinen plazetara, eta orain Durangoko hitzorduaren atarian zaude. Kostatu egin zaizu saioiko egotea berriro?

Bai, asko. Gorputza lehengora bueltatzea asko kostatzen da. Badut indarra, baina erresistentzia hobetzea lan nekeza da. Gero, kirola, lana eta amatasuna kontziliatzea ere ez da erraza.

Zer helburu duzu Euskadiko txapelketan?

Nire helburua lan txukuna eta duina egitea da. Orain sei bat urte lasto-altxatzen hasi nintzeneko lana egiten badut, pozik egongo naiz.

Lau emakume arituko zarete lehiari. Dauden denak zarete?

Bi ginen lehen, eta lau gara orain. Zoritxarrez, orain Araban baino ez daude lastoa altxatzen dutenak. Plazarik plaza eramanda, ikusgarritasuna ematen diogu modalitate honi. Apurka geroago eta emakume gehiago dabil herri kiroletan. Adibiderik garbiena pentatloia da. Bizkaian, Nafarroan... badaude herri kirolak sustatzeko lanean dabilzan elkarteak. Nafarroan, umetatik gainera; asko lantzen dute harrobia. Gero, herri kirolak plazetara zabaltzea da gakoa. Umeek ereduak behar dituzte.

Durangoko plazari zer deritzozu?

Durangon izango zela esan zidatenean asko poztu nintzen. Aukera bikaina da kirola ezagutarazteko.

Non eta Ezkurdi plazan, gainera! Herri kirolak horrelako plazak behar ditu. Bertatik pasatzen den edonork ikusteko modukoak. Eta geratzen denari igual gustatuko zaio edo harrirituta geratuko da, eta bere inguruko jendeari komentatuko dio.

Herri kirolen artean, zeini diozu kariñorik handiena? Sokatirari beharbada?

Lasto-altxatzea eta trontza oso gustuko ditut. Sokatiran baino lehenago hasi nintzen trontzan.

Bikote bateko trontzalari bat lesionatu zenean, ea probatuko nuen galdetu eta baietz erantzun nuen. Gogoan ditut lehenengo entrenamendu haiek, sekulako beroagaz. Baina Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelketak irabaztea lortu genuen. Gerora, haurdun nengoela, Euskal Herriko txapela irabazi nuen eta hori ere oso momentu berezia izan zen niretzat. Gainera, Nafarroako bikoteari irabaztea itzela izan zen, teknikoki bikainak direlako. Oso ondo prestatuta joan ginen. Laster bueltatuko naiz plazetara trontzan. Lehenengo trontza mistoan, Mungian. Ondoren, Euskal Herriko txapelketa etorriko da.

Sokatiraren moduko talde kirola ala lasto-altxatzearen moduko bakar-kako lana duzu gurago?

Talde kirola dut gurago. Lasto-altxatzea kirol indibiduala da, baina taldean jokatzen dugu, bata bestea animatzen ibiltzen gara eta. Eta sarritan altxaldi bat gehiago egiten duzu, animoen-gaitik. Zapatuan irabazten badut, sano poztuko naiz, baina beste edonork irabazita ere asko poztuko naiz.

Hogeit bat urte daromatza herri kiroletan. Topatu duzu trabarik?

Herri kirola oso mundu matxista izan da. Emakumeengan sinestu duen jende gutxi egon da. Sokatirako adibide bat ipiniko dizut. Emakumezko talde gutxi dagoenez, gizonekin batera aritu izan gara. Ba gu 45 minutu itxaroten ere egon gara tiralditik tiraldira. Goma bi baino ez zeudenez, gizonen tiraldien hutsuneetan sartzen gintuzten. Urte askoan egon gara horren kontra borrokan. Zorionez, aurrerapausoak eman dira eta egoera hobetzea lortu dugu. Nik ez diet gizonen euren tokia kendu gura, baina neure tokia eduki gura dut. Merezki dugula uste dut.

Zapatu arratsaldean herri kirolak protagonista, Ezkurdin

Zapatuan Euskadiko lasto-altxatze eta txinga-eroate txapelketak izango dira Durangoko Ezkurdi plazan, 19:00etan. Beraz, gura duten guztientzat zabalik dagoen ikuskizuna da. Lasto-altxatzen lau emakume arituko dira txapelaren bila: Ruth Linaza, Sara Asenjo, Lorea Fernandez eta txapela janzteko faboritodun Garbiñe Lopez de Uralde. 30 kiloko lasto-fardoagaz minutu biko lana egin beharko dute. Gizonezkoen kasuan, zazpi parte hartzaile daude: Beñat Amade, Eder Lopez de Abetxuko, Jon

Loiola, Eder Saez de Ocariz, Oier Gonzalez, Jon Lapazaran eta Mikel Gonzalez. Kasu honetan, 45 kiloko lasto-fardoagaz arituko dira, minutu biko lanean. Altxaldirik gehien egiten dutenek jantziko dute txapela.

Txinga-eroaten hiru emakume —Ainize Perez, Sara Jimenez eta Iranzu Urrea— eta zortzi gizonezko lehiatuko dira Ezkurdi plazan: Cristian Gomez, Kerman Perez, Jon Beobide, Adrian Latxa, Pablo Alvarez, Josu Magallón, Imanol Martin eta Andoni Zubiaurre.

Durangoko pilota eskola, sasoi onean

Azken urteetan Durangon pilotarien harrobia sortzeko egindako lanak bere emaitzak eman ditu. Aurten 97 ume eta gazte dituzte



Goian, zutunik, Enaitz Uribe, Martin Larrañaga, Nerea Arriaga eta Txaber Zabala, pilota eskolako neska-mutilekin.

PELOTA • JONE GUENETXEA

Nagusiak frontoian sartzeagaz batera, txikienak eurekin jolastera hurbiltzen dira. Durangoko pilota eskolaren erreferente dira eta igartzen da. Pilotakada batzuk eman eta kazetariagaz duten hitzordura joan dira. Enaitz Uribe Lejarceguik (Durango, 2008), Martin Larrañaga Garciak (Durango, 2003) eta Nerea Arriaga Alcocebak (Durango, 2007) Peter Memoriala irabazi zuten joan zen asteburuan. Gazteak izanagai-

tik ere, urteak daramatzate esku pilotan, hasieran jolasten eta orain jokatzen. Uribe 4 urteagaz hasi zen, Kurutziaga ikastolan, eta, ondoren, Ezkurdiko frontoian. Orain arte errugbian ere aritu da, baina orain pilotan zentratu da. Denboraldi hasiera gogorra izan zuen, eskuetan min hartuta, baina, oztupoak gaindituta, denboraldi amaiera borobila egin du. Joan zen asteburuan, Peter Memoriala eta Bizkaiko lau eta erdiko txapelketa irabazi zituen.

"Poztasun handiko asteburu izan da. Peterren Memoriala berezia da, lagun artean eta etxean jokatzen delako. Eta frontoi osoko Bizkaiko txapelketako emaitza ere ona izan da, irabazi ez arren finalera heldu naizelako. Lau eta erdiko irabazita, arantzatxoa kendu dut", esan du Uribe.

Pilota eskolaren elkarte izaerak lan boluntarioa bultzatzen du. Horren adibide da Martin Larrañagak eskolako txikiak entrenatzen

emandako denbora. Txaber Zabala entrenatzailearen laguntzaile aritu zen gaztetxoei irakasten. Larrañaga pozik dago Peter Memorialeko garaipenagaz. "Txapela irabazteak ilusioa egiten du beti. Ez naiz txapel asko irabaztekoa, baina irabazitakoak gustura jaso ditut. Zaldibarko txapelketa bat nabarmenduko nuke", esan du.

Esku pilotaz gainera, pilota eskolak duen beste adarretariko bat nesken pala taldea da. Nerea

Arriaga 9 urteagaz hasi zen palan jokatzen, lagun kuadrillagaz batera. Pala saskibaloiaz uztartzen du, eta, memoriala irabazita, egindako ahaleginaren ordaina jaso du. "Etxean irabaztea beti da pozgarria", esan du Arriagak. Bere ibilbideko garaipenen artean badu bat oroimenean bereziki gordeta: "Orain urte bi nire lagun onenagaz irabazi nuen liga, Irati Azkoetagaz, eta horixe izan da txapelik inportanteena", gaineratu du.

97 pilotari dituen eskola

Txaber Zabala Durangoko pilota eskolaren lemaizain dabil. Ia ume-rik apuntatzen ez zen sasoiari, lanari gogor ekin eta harrobi sendoa sortu zuen. Pilotak gaur egun Durangon bizi duen momentua urteetan egindako lanaren emaitza da. "Pilota eskolan 97 fitxa ditugu eginda. 55 bat ume parte hartzen dute txapelketetan. Horri gehitu behar zaie Kurutziaga ikastolan eta Jesuitak ikastetxean ematen ditugun saioetan parte hartzen duten umeak. "Oso momentu onean gaude. Bizkaian ume eta gazterik gehien duten hiru klubetako artean egongo gara", argitu du Zabala.

Durangaldeko pilota eskolen panorama, ostera, ez da hain ona. "Pandemia sasoiatik hona, Durangaldean hainbat klub galdu da. Beste batzuek badituzte ume txikiak, baina zailtasunak dituzte federatu mailan. Horregaitik, beste herri batzuetako gazteak ere etortzen dira Durangora entrenatzera", adierazi du Zabala.

Jokaldia

Patua

Askotan izkin egin nahi diogu zoriari, baina batzuetan alde aurretik idatzita egoten da. Hori esan zuen duela urtebete ziklista profesional baten amak. Semea 26 urterekin hil zen, Albulapass mendatea jaisten ari zela. 90 Km/h-ko abiadan, bihurtu bat gaizki hartu eta amildegian behera joan zen; erreka batera iritsi, harriztar bat buruarekin jo eta hiltzerian gelditu zen bertan. Ospitalera eraman eta ordu batzuetara hil egin zen. Suitzako Tourrean izan zen, bosgarren etapen, 2023ko ekainaren 15ean.

Ziklista Gino Mader suitzarra zen. Ama helmugan zen, semearen zain. Gerora, elkarrizketa batean, goizetik gehiago urduri zegoela aitortu zuen, barruan zerbait sentitzen zuela. Errua inorena ez zela izan esan zuen, eta



Alfonso Arroio Monasterio
Kirol kazetaria

Euskal Herriko Itzulian bizitakoa nekez ahaztuko dugu. Hotzikara eta izua sentitzeko erorikoa izan zen

semearen patua idatzita zegoela. Maderraren lankide askok buruari buelta asko eman zioten, arriskatzeko hainbeste merezi duen pentsatuz, bizitza aitaren batean amaitu daitekeelako. Pelotoian maitatua zen Gino Mader. Eskuzabala, aldarte onekoa eta konprometitua. Behin, Bilbon zegoela, galduta zebilen txakur bat hartu eta etxera eraman zuen. Pello Bilbao taldekide eta laguna izaki, gernikarraren izena jarri zion txakurrari. Lasterketa guztietara berarekin eramaten zuen. Maderraren omenez, Suitzako Tourrean sekula ez

da 44 dortsala gehiago erabiliko. Ziklistak berea du arriskua, sailheste ezina da eta norberak erabaki behar izaten du zenbat arriskatzeko prest dagoen. Hildako ziklisten zerrenda luzea da: Fabio Casartelli, Andrei Kivilev, Wouter Weylandt, Michele Scarponi, Bjorg Lambrecht... Aurten, zorionez, ez da gertaera lazgarrikerik izan baina erorikoak trumilka izan ditugu. Euskal Herriko Itzulian ikusi eta bizitakoa nekez ahaztuko dugu. Laugarren saioan, Olaetako jaitsieran hotzikara eta izua sentitzeko erorikoa izan zen. Irudia, lehergailu bat bota osteko. Ziklistak lurrean, batzuk isilik eta beste batzuk aieneka: Vingegaard, Jay Vine, Stef Cras... ikaratzeko. Barrua astintzen du halako jazoera batek. Zorionez, ez zen hildakorik izan patuak hala nahi izan zuelako.

Mallabiko Biharko Izarrak txapelketak 20. urteurrena ospatu du

JULEN URIBE



Eguraldi ederra eta giro bikaina Urkiolako San Antonio egunean



Ekainaren 14an

ABADIÑO jaialdia

Anje Duhalderi esker onez jaialdia: Xabier Amuriza, Miren Amuriza, Eñaut Elorrieta, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Josu Zabala, Joseba Tapia, Antton, Ines Osinaga, Onintza Azkarate, Itziar Navarro, Manex Pagola eta Teresa Jareño, 20:30ean, Probalekuan. Parrillada, 19:30ean.

ABADIÑO antzerkia

'Ensayo general' (Banarte), 20:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ urteurrena

Iremiñeko dantzarien kalejira, 19:00etan, Elizondotik Kultur Etxera. Argazki erakusketaren inaugurazioa, 19:30ean. Trikipoteoa, 20:00etan, Kultur Etxetik hasita.

DURANGO Euskal Astea

Jolas eguna: Etxola ibiltariak, 17:00etan, Otamotzena auzoan.

DURANGO berbaldia

Endometrosiari buruz, 18:30ean, Otamotzena Auzogunean.

DURANGO bakarrizketa

'Ztandap' (Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai), 19:00etan, Plateruena kultur aterpean.

IURRETA antzerkia

'Agurea, urpekaría eta itsasoa', (Hortzmuga), 18:30ean, Askondon. 'Qué buen día', (Maite Guevara), 19:30ean.

IURRETA izen ematea

Iurreta Berbaz Mintzodromoan parte hartzeko izena emateko azken eguna. Izena emateko: 688 863 736 / 94 681 27 26 / biblioteka@iurreta.eus

ZORNOTZA kantua

Zornotzan Kantuz, 19:30ean, Venecia tabernan hasita.

Ekainaren 15ean

ABADIÑO Lasterbidean

Izen emateak eta dortsal banaketa 07:30etik 12:00etara, probalekuan. Oinezko martxaren irteera, 09:00etan, Txanportan. Lasterketa luzea, 11:00etan. PARY & TIZA DJak, 11:30ean. Lasterketa laburra, 12:30ean. Sari banaketa, 13:30ean. Herri bazkaria, 14:30ean, Zelaieta herri eskolan. Umeentzako ikuskizuna, 16:00etan. Ixtaklok elektrotzaranga, 18:00etan, Zelaieta eskolatik. Haize Arrosa + Los Zopilotes Txirriaos + L PUNTO DJa, 21:00etan, Txanportan.

BERRIZ urteurrena

Iremiñeko dantza taldearen erakustaldia, 20:30ean, Olakuetako frontoian.

DURANGO Euskal Astea

Artisau Azoka, 12:00etan, Andra Marian. Errementarien erakustaldia (11:00-21:00). Umeentzako herri kirolak, 11:00etan, San Fausto auzoan.

Jaizale Durangaldeko txistulari elkarteak, B. Ertzilla musika eskolako txistulariak, Txoritxu Alai eta Kriskitin dantza taldeak, 12:00etan, Merkatu plazan hasita.

Kuadrilla Eguna: trikipoteoa, herri bazkaria, jolas herrikoiak eta elektrotzaranga, 13:00etan hasita.

Euskadiko Herri Kirol Txapelketa, 19:00etan, Ezkurdi plazan.

MALLABIA musika

Emakumezkoen frontenis txapelketa, 09:00etan, frontoian.

Mendi irteera (Mallabia-Zubitegi-Arietzu), 10:30ean, plazatik.

Saltsi-fest, 19:00etan, parkean.

Xaibor, 20:30ean.

IURRETA antzerkia

'Art-ilusio' (Markeliñe), 18:30ean, Askondon.

IURRETA dantza

'NOEUD' (DaB konpainia), 19:30ean, Askondon.

IURRETA irteera

Bizikleta irteera Urretxura, 08:00etan. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.

ZORNOTZA jaialdia

Tilofest kulturen topaketa, 17:00etan, Zubiondo plazan (Juravca elkarteak).

Ekainaren 16an

ABADIÑO sanantonioak

Azoka 10:00etatik 15:00etara, Urkiolan. Herri kirolak: Hodei Ezpeleta, Malen Barrenetxea, Irati Astondoa eta Bihurri aizkoragaz, Patricia Martin harri jasotzen eta Karlos Aretxabaleta Iparaldeko jokoetan, 12:45ean. Sokadantza: Aiko taldea eta San Lorentzo dantza taldea, 13:00ean. Erromeria: Aiko + Miren eta Roberto Etxeberria + Bizkaiko gaiteroak, 16:30ean.

BERRIZ urteurrena

Iremiñeko dantza taldearen kalejira, 11:00etan, lokaletik Berrizburura.

Dantza erakustaldia, lehengo eta oraingo dantzariekin, 12:30ean, Berrizburu futbol zelaian. Bazkari herrikoia, 14:30ean, eskolako patio berrian. Ansorregi eta Larrañaga, 16:00etan.

DURANGO elkartasuna

GEU BE Zumbathon Solidarioa, 10:30ean, Ezkurdin. Sarrerak salgai 5 euroan, Geu Be elkartean edo DK-ko Zumba jardueran galdetuta.

DURANGO Euskal Astea

Julene Azpeitia Lehiaketako sari banaketa, 12:00etan, Plateruena kultur aterpean.

Durangoko Orfeoia:

Missa in tempore belli "Paukenmesse" (Joseph Haydn), 19:00etan, Andra Mariko basilikan.

IURRETA antzerkia

'Akabo!' (Barsanti), 13:30ean, Askondon.

IURRETA irteera

Bizikleta irteera Gopegira, 08:00etan. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.

MALLABIA kirola

Emakumezkoen frontenis txapelketa, 09:00etan, eskolan. Bizkaia Torneoak, 17:00etan, frontoian.

ZORNOTZA tailerra

'Mito... ¿Qué? Esta obra es una ruina' antzerki tailerra (Markeliñe), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Ekainaren 19an

ELORRIO berbaldia

'Ley de sostenibilidad y cambio climático' (Hizlaria: Dani Maeztu EH Bilduko parlamentari ohia), 19:00etan, Iturri kultur etxean.

IURRETA mintzodromoa

Iurreta Berbaz Mintzodromoak, 18:00etatik 19:30era, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA berbaldia

'Emakumeak musikaren industrian' (Hizlariak: Amaia Miranda, Miren Narbaiza, Maitane Serrano eta Garazi Velasco. Moderatzailea: Ilaski Serrano), 18:00etan, Zelaietako auditoriumean.

ZORNOTZA performance

'Fonoeskultura arteak sapiens bihurtu gintuen' (Urbela Brouard) arte-musika performancea, 19:30ean, Zelaietako kontzertu gelan.

Ekainaren 20an

ZORNOTZA kontzertua

Yogurina Borova + Haize Arrosa + Eider + STR, 17:00etan, Zubiondon.

Ekainaren 21ean

ZORNOTZA musika

Haizetara Kaleko Musikaren XVII. Jaialdia, 19:00etan, Zelaieta parkean hasita.

Ekainaren 30era bitartean

ZORNOTZA erakusketa

'Belatxikieta zazpitzaboleta' erakusketa, Zelaieta zentroan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Vidas perfectas

barikua 14: 18:30 / 21:00
zapatua 15: 19:30 / 21:30
domeka 16: 20:00
astelehena 17: 18:00 / 20:15
martitena 18: 18:00 / 20:15
eguztana 19: 19:00

• Sombras del pasado

barikua 14: 18:30 / 21:00
zapatua 15: 19:00 / 21:30
domeka 16: 19:30
astelehena 17: 18:00 / 20:15
martitena 18: 18:00 / 20:15
eguztana 19: 19:00

• Respira. El tiempo se acaba

barikua 14: 18:30 / 21:00
zapatua 15: 17:00 / 19:30 / 21:30
domeka 16: 19:30
astelehena 17: 18:00 / 20:15
martitena 18: 18:00 / 20:15

• Del Revés 2

domeka 16: 18:00
eguztana 19: 19:00

• Pico de oro y sus amigos

zapatua 15: 17:00
domeka 16: 17:30

• Sylvania families

zapatua 15: 17:00
domeka 16: 17:30

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• Manolo Kabezabolo

astelehena 17: 20:15



Botikak

BARIKUA, 14 · 09:00-09:00	DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA, 17 · 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO
ZAPATUA, 15 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO, INTXAURRONDO 22. - DURANGO	MARTITZENA, 18 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO	CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 19 · 09:00-09:00
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA, BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO	BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO
FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA	EGUENA, 20 · 09:00-09:00
09:00-14:00	GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO
IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA	IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 16 · 09:00-09:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Ur (981. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Lizar!** 11 urte handi egingo ditu gure etxeko txikiak ekainaren 15ean. Muxu erraldoi bat etxekoan partez!



Amama izango den **Susana Rodriguez** ospakizunetan dago. Disfrutatu zure eguna!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 12° / 20° ☁	ASTELEHENA ↓ 12° / 26° ☁	EGUAZTENA ↓ 13° / 19° ☁
DOMEKA ↓ 10° / 25° ☀	MARTITZENA ↓ 15° / 23° ☁	EGUENA ↓ 12° / 22° ☁

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1#

MAITASUN KAPITALA
Karmele Jaio (Elkar)

2#

LANBROA
Pello Lizarralde (Erein)

3#

MESFIDA ZAITETZ
Bea Salaberri (Txalaparta)

4#

MUNDU ZITALAREN KONTRA
Lizar Begoña (Elkar)

5#

MONOGAMOAK
Inigo Astiz (Susa)

"Tokiko komertzioen gertutasuna ematen dugu; horixe da gure balioa"

Beñat Granadosek Durangoko Gorrotxategi agrizentzaren gidaritza hartu du; Marijo eta Inma Gorrotxategi ahizpen lekukoa hartu ondoren, 58 urte dituen negozioagaz jarraituko du



Marijo Gorrotxategi Gorrotxategi

Dendaria
IZURTZA | 1963

Beñat Granados Lauzirika

Mahastigintza eta nekazaritza aholkularia
DURANGO | 1991

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Ibilbide luzea egin ondoren, hainbat tokiko komertzio pertsona jaitsi dute Durangaldean; neurri batean, errelebo faltagaitik. Beñat Granados eta Marijo Gorrotxategi txanponaren beste aldean daude. Marijok aitak sorturiko negozioa eraman du ahizpagaz azken 45 urtean. Orain, erreleboa eman dio Beñati. Iaz hasi zuten trantsizioa.

Beñat, mahastizaintzarako aholkulari teknikoa izanda, zelan erabaki duzu Gorrotxategitarren negozioa hartzea?
Beñat Granados: Mahastizaintzarako kanpo-aholkulari lez jarduteko bulego baten bila nabilela, Gorrotxategi ahizpak erretiroa har-

tzekotan zirela jakin nuen, eta lan biak uztartzeko aukera ikusi nuen: aholkulari lana eta negozioaren gidaritza. Profesionalki mahastizaintzan jardun arren, nekazaritzan graduatua naiz eta lehen sektoreagaz zerikusia duen guztiagaz eroso sentitzen naiz. Durangon bizitzea eta familia bat osatzea izan dira nire apustua. Gertu mahastiak eta mahastizainak daude, eta baita ortulariak eta nekazaritza zaletasun dugunok ere.

Ia 60 urteko ibilbidea duen negozioa hartu duzu. Erronka handia da.

B.G.: Betiko denda tradizional bat oraingo zirkunstantzietara egokitzea izan da erronka nagusia.

Betiko denda tradizional bat gaur egungo zirkunstantzietara egokitzea izan da erronka nagusia
BEÑAT GRANADOS

Negozioa, lan administratiboa digitalizatzea, hortxe dago erronka. **Zein da zure helburua?**

B.G.: Denda gehiago ezagutaraztea. Bezero fidelak ditugu, eta pozik daude erreleboa hartu dudalako. Baina bezero berriak erakartzea dugu helburu. Marijok bere espe-

rientziagaz, eta nik berarengandik ikasitakoagaz eta nire ezagutzagaz, bezeroari aholkurik onena ematen diogu. Tokiko komertzioen gertutasuna eskaintzen dugu. Horixe da gure balioa.

Marijo, aitaren lekukoa hartu zenuen Inma ahizpagaz batera.

M.G.: Bai. 14-15 urteagaz hasi ginen dendan aitari laguntzen. 45 bat urte egin ditugu dendan lanean.

Orain erreleboa eman diozue Beñati.

M.G.: Bai. Modu naturalean erabaki genuen negozioa uztea. Eta oso pozik gaude, jarraipena duela ikusten dugulako. Pena eman dit aitak negozioak aurrera egingo duela ez

Lan asko egin dugun arren, oso ondo joan zaigun sentsazioagaz uzten dut negozioa
MARIJO GORROTXATEGI

ikusteak, poz itzela ematen zion-eta negozioa martxan ikusteak, jendeagaz ikusteak. Urtebete jarraituko dut Beñategaz, akordio hori dugu. Lan egiteko era desberdina dugu, tirabira gutxi batzuk ere bai baina... disfrutatu egiten dut dendan.

Zein sentsazioagaz zoaz?

M.G.: Lan asko egin arren, oso ondo joan zaigun sentsazioa dut. Oso urte onak hartu ditugu, ezin naiz kezatu. Ordu asko sartu behar dira, horixe du komertzioak. Batez ere, udaberrian eta udan dugu lana. Etxean baino denbora gehiago egin dugu dendan. Erretiratu eta gero, gauza txikiez disfrutatuko dut.

Beñat, zer hartu behar da kontuan mahasti bat edo ortu bat lantzeko?

B.G.: Lan egitea. Produktu on bat lortzeko, lan egin behar da, horregaitik azpimarratu gura dugu bertako ekoizleen lana. Ornamentaziorako loreak zein orturako landareak gertuko haztegietatik ekartzen ditugu, eta inguruko ekoizleen tokiko eta sasoiko produktuak saltzen ditugu (patatak, arrautzak, ezti, tomate...). Abereentzako pentsua eta janaria ere saltzen ditugu, eta baita substratuak, botikak eta ongarririk ere.

Lauhortza

Sergio Murillo Corzo
Ekonomialaria



Adinkeria; izena eta izana

Irudikatu egizu, anbotozale, 70 urteko pertsona bat. Pasibotasuna, gaixotasuna, gainbehera, gastua, eskaera, narriadura eta autonomia pertsonalik eza etorri badira zure burura... kontuz!

Datu objetiboek hurrengo adierazten dabe: adinekoen %85 baino gehiago autonomo dira eguneroko bizitzako jardueretarako; 65 urtetik gorakoek %10,5ek soilik daukate autortuta mendetasun-mailaren bat; gure herrietako boluntarioen %21,8k 65 urte edo gehiago dituzte; eta %43ek jarduera sozial eta/edo politikoetan parte hartzen dabe.

Azken datu honek kontuan hartuta, argi esan geinke adinekoen hasieran azaldutako beste irudi hori ez dala bidezkoa, ez datorrelako errealitate osoagaz bat. Eta ez da bidezkoa, estereotipo edadista horreetatik abiatuta jarduten dogunean bidegabekeria sozialak egin daitezke. Horreek berrikus-tea premiazkoa eta garrantzitsua da; izan ere, estereotipoek, esparru mental gisa funtzionatzen dabenez, ondorioak sortzen dabez gizarteak adinekoei emoten deuten tratuan.

1969tik badauka izena, bai, adinagatik diskriminazioak. Adinkeria lez ezagutzen da... eta Nazio Batuen Erakundeak biharko eguna, ekainaren 15a, erabiltzen dau urtero Adinekoen Aurkako Tratu Txarrez hausnarketa eta jabekuntza eragiteko.

Askatasunaren bidean, adina ezin da aurreiritzi mugatzaile barri bat bihurtu. Horregaitik, oztopo mentalak, sozialak eta kulturalak eraitsi behar ditugu, adina ez daiten bizi-egoera izan. Datu kronologiko hutsa baino gehiago bada, adinkeria da eta!

HEGAN RENT

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 171 362

administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu zerbitzu berria!

